

Kultura

L'Atelierreko dantzariak kalera irtengo dira Durangon, bihar, Dantzaren Egunean > 13



Txapeldun izan ala ez izan

Domekan binakako finala jokatu du Pablo Berasaluze pilotari berriztarrak. 35 urte gaz, bere ibilbide profesionaleko unerik gozoenak bizitzen ari da > 15



AKI dendaren lizentziari helegitea aurkeztu dio Dendak Bai elkarteak > 2

Udalak emandako jarduera lizentzia legez kanpokoa dela diote merkatariek

Hilabete barru, AKI brikolaje supermekatuak ateak zabaltzea aurreikusi du Montorretan. Dendak Bai elkarteak, baina, Durangoko Udalak AKIri emandako jarduera lizentzia legez kanpokoa dela iritzita, helegitea aurkeztu du. Merkatariek diotenez, Lurralde Zatikako Planari dagokionez, udalak AKI zabalduko den lursaila hartu du kontuan bakarrik, Montorretako industriagune osoa beharrean. Kautelazko neurri moduan lizentzia hori etetea eskatu dute.



BATXILERGOAK 2013-2014

ZATOZ GURERA!! - INFORMA ZAITEZ

www.durangojesuitak.org

- Ikastetxe ezagun eta aintzatotsia
- Heziketa eskaintza osoa (Urte batetik 18ra bitartean)
- Balio kristauak transmititzeko konpromisoa.
- Hezkuntza arloan ospeduna (kalitatezko hezkuntzaren bermea)
- Pertsona konprometutuez osatutako taldea.
- Kudeaketa sistema (Zilarrezko Q, ISO 9001 eta ISO 14001)
- Lehen mailako instalakuntza eta hornidurak.
- Eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza.

JESUITAK
Durango



ADINAK	HAUR HEZKUNTZA	LEHEN HEZKUNTZA	DBH	BATXILERGOAK	UNIBERTSITATEA
	1 2 3 4 5	6 7 8 9 10 11	12 13 14 15	16 17	GOI MAILAKO HEZKETA ZIKLOAK

Kurutziaga, 1 - 3 PK. DURANGO

Tel.: 94 681 00 50

Fax: 94 681 03 04

E-mail: sanjose@durangojesuitak.org

Mallabia > 2

Mallabia eta Ermua Bizirik-ek manifestazioa deitu du biharko

Durungaldea > 6

39 pertsonen erabili dute Amankomunazgoko aterpetxea

Durungaldea > 6

Manifestazioa deitu du LABek Durangon, maiatzaren 1erako

Mañaria > 7

Gaur arratsaldean inauguratu dute Errekondoko kultur etxea

Herririk herri

> MALLABIA

Mallabia eta Ermua Bizirik-ek manifestazioa deitu du biharko

47 enpresa komite, eragile, elkarte eta udalek manifestazioarekin bat egin dute



Manifestazioaren antolatzaileek ateratako argazkia.

> JONE GUENETXEA

Mallabia eta Ermua Bizirik-ek manifestaziorako deia egin du zapaturako. Protesta ekitaldia Ermuko plazatik abiatuko da, bihar, arratsaldeko 17:00etan. Mallabia eta Ermuko 47 enpre-

Protesta ekitaldia Ermuko plazatik abiatuko da, bihar, arratsaldeko 17:00etan

sa komite, eragile, elkarte eta udalek deialdiagaz bat egin dute. Tartean, honako hauek: Mallabiko eta Ermuko udalak, Izargorri elkarte, Mendibil eta Jasokunde abesbatzak, Mallabiko Ernai Gazteak, Mecanicas Ma-

llabi, LAB USA, WAT Direcciones, CCOO CNC LAN, Replatisa, LAB IDESA, CCOO IMIGAS, CGT-DEPRESA, DMETAL eta LAB Osakidetza daude.

Mallabian eta Ermuan krisiak gogor eragin du. Bi herrietako langabezia-tasa azken zazpi urteetan hirukoiztu egin dela gogorarazi dute manifestazioaren deitzaileek: “Krisiak ekarri diguna bazterkeria soziala, inposaketa eta pobrezia da, eta gainera, orain arte ere kaltetuenak izan direnengan: gazteria, langabetuak, jubilatutak, langileak...”. “Herrian ditugun gatazkei au-

Bi herrietako langabezia-tasa azken zazpi urteetan hirukoiztu egin dela gogorarazi dute

rre egiteko indarrak batzeko garaia da”. Lan erreformak, desjabetzeak, LOMCE legea, kordainketa osasunean, Mendekotasun Legearen garapena etetea eta beste hainbat ekimen kritika-tu dituzte.

Marixelen jaiak ospatuko dituzte Areition, datorren astean

> J.G.

Areitio auzoko jaiak datorren martitzenean abiatuko dituzte. Arratsaldeko 20:00etan, donien atxa apiniko dute, eta kanpaiak jo eta txapliguak jaurtiko dituzte. Ondoren, Goizeder jatetxean afaritarako batuko dira.

Eguaztenean, meza izango da 11:00etan. Ostean, Mallabiko trikitilariak giroa alaituko dute. Mallabiko dantza taldeak, berriz, erakustaldia eskainiko du. 12:30ean gizon probetan jardungo dute Iñigo Aurrekoetxeak (Euskal Herriko txapelduna 80 kilotan), Gorka de la Concepción eta Aitor de la Concepción 500 kiloko harriagaz. Arratsaldeko 17:30ean, asto probetan Txibiter (Azkoitia), Vitorio Celaya (Eibar), Goizeder jatetxea (Mallabia) eta Lupiortu Goikoa (Erandio) ariko dira.

> ELORRIO

45. urtebetetzea ospatuko du bihar Besaide dantza taldeak

Urteotan taldetik pasatu diren dantzariak elkartzea da taldearen helburua

> MARKEL ONAINDIA

Besaide dantza taldeak 45 urte bete ditu dagoeneko, eta urtemuga berezi hori ospatzeko, egun osoko jaialdia egingo dute bihar. Goizean, kalejira egingo dute herritik, eta 12:30ean dantza saioa. Ostean, trikipotean irtengo dute, eta 14:30ean bazkarian batu-ko dira. Bazkalosterako erroneria prestatu dute, Gozo-Gozo taldeagaz. Urteotan taldetik pasatu diren dantzariak elkartzea da tal-

dearen helburua, Maialen Piña begiraleak azaldu duenez. 300 lagunek eman dute bazkaltzeko izena. Horrez gainera, taldean

Umeen dantza taldea da Besaide; gaur egun, 70 haur dabilta euskal dantzak ikasten, hogeitaz begiraleagaz

egiten den lana erakustea ere gura dute. “Askotan lan hori ez da ikusten”, esan du.

Umeen dantza taldea da Besaide; gaur egun, 70 haur dabilta euskal dantzak ikasten, hogeitaz begiraleagaz. Piñak dio, oso gustura egiten dutela lan boluntario hori. 45 urtean lan handia egin dela esan du, euren aurrekoak gogoratuta: “Eurei eskerrak hel-du gara honaino, eta espero duguk ere erreleboa edukitzea”.



Besaide dantza taldekoak, familia argazki batean.

> ZALDIBAR

Lanber eta Colanber enpresen egoeraz

> ITSASO ESTEBAN

Eskopeten fabrikazioan eta salmentan jardun duten Lanber eta Colanber enpresen egoeraren berri ematen duen idatzia aurkeztu zuten martitzenean udalbatzarrean LAB eta CCOO sindikatuek.

Hartzekodunen lehiaketan daude talde bereko enpresa horiek, eta lantoki bietako 15 lanpostu galtzea ekarriko duen likidazio prozesuan sartuta. Langileek martitzenean Zaldibarko udalbatzarrean aurkeztu zuten idatzian azaltzen dutenez, “enpresa hauen desagertzea ez da bideragarritasun ekonomiko ezagatik gertatuko, arduradunen kudeaketa negargarriak ekarri gaitu gauden irteerarik bako kalezulo honetara”.

Hainbat hilabeteko soldata zor diete Lanber eta Colanber enpresek langileei, udalbatzarrean irakurritako idatzi horretan azaltzen denez. Egoerak kaltetutako langileei elkartasuna adierazi zieten udaleko alderdiek.

Bilduk eta PSEk haurreskola proiektuaren alde egin dute

> I.E.

Martitzenean ezohiko udalbatzarrean, Bilduko gobernuaren eta PSE-EEren aldeko bozkekin onartu zuten behin betiko, Haur Hezkuntzako eta haurreskolako eraikin berriak egiteko proiektua. Bozketan abstentitu egin ziren EA-Jko eta PPko zinegotziak. Hasierako egitasmoaren moldaketa da onartu dutena: esaterako, lau barik hiru gela izango ditu azkenean, haurreskolak.

Jose Andres Urizar zinegotziak eman zuen proiektuaren inguruko informazioa: denera, 1.486.800 euroko aurrekontuagaz burutuko dute proiektua (eta Eusko Jaur-laritzaren 464.800 euroko eta EEEren 105.000ko dirulaguntza izango dituzte).

Maiatz edo ekainerako egongo da obra adjudikatu-ta. Lanak udan egingo dituzte, Arantza Baigorri alkatearen berbetan: “Iraillean, ikas-turtea eraikin berrietan hasi-ko dute umeek”.

> DURANGO

AKI dendaren lizentziari helegitea aurkeztu dio Dendak Bai elkarteak

Udalak emandako jarduera lizentzia legez kanpokoa dela uste dute

> M. O.

Hilabete baten bueltan merkataritzagune berria zabalduko dute Montorretan: AKI brikolaje denda. Udalak emandako jarduera lizentzia legez kanpokoa dela uste dute Dendak Bai elkarteak merkatariek, eraikitze muga gaindituta dagoelakoan. Errekurtsua ipini dute Bizkaidendak elkarteagaz batera, eta horren berri eman zuten martitzenean Dendak Bai elkarteak Guillermo Oarbeaskoak eta Bizkaidendak elkarteak Jose Andrés Cebrecosek. Merkatarien ordezkariak adierazi dute Montorretan saltokiak eraikitze muga gaindituta dagoela, eta udalak lizentzia emateko egin duen kalkulugaz ez dute bat egiten. Euren esanetan, udalak AKI zabaldu-

ko den lursaila hartu du kontuan bakarrik, Montorretako industrialde osoa beharrean. Azaldu dutenez, Zatikako Lurralde Planak industrialdean 13.000 metro karratutan ematen du komertzioak zabaltzeko aukera. Diote, orain AKIren lursailean 13.000 metro horiek bete direla, baina industrialde osoa kontuan hartuta 32.400 metro daudela erabilia.

Jaurlaritzak lizentziari baiezkua eman zion. “Udalak,

Merkatariek azaldu dute Montorretan saltokiak eraikitze muga gaindituta dagoela

interpretazio okerrarekin, akatsera eroan du Eusko Jaurlaritza. Jaurlaritzak bere akatsa konpondu du udala egoeraren arduradun eginez”. Lizentzia errekurritzeaz gainera, kautelazko neurri moduan lizentzia hori etetea eskatu dute.

Merkataritzagune berriak komertzio txikiari kalte egingo diola uste dute. “Kanpaina publiko bat aurrera eroango dugu merkataritzagune honek herriari eta merkatariei egingo dizkien kalteak erakusteko”. Gainera, ohartarazi dute Durango estrategikoa dela EAE mailan, eta inguruan ere eragina edukiko duela. Inguru merkatartitzagune handi bat bihurtzeko arriskua dagoela-eta, kezka agertu dute.

2012ko otsailetik dihardute lizentzia horren kontra egiten.



Dendak Bai eta Bizkaidendak elkarteetako kideak goian; AKI denda behean.

PSE-EEK dio Gaztetxeko eraikina arriskutsua dela

Riosek eraikina botatzeko eskatu dio EAJri



Gaztetxeko eraikina araudiz kanpo dago.

> M.O.

PSE-EEko Pilar Riosek EAJ kritikatu du, Gaztetxea oraindik bota barik dagoelako eta bere ustez arriskutsua izaten jarraitzen duelako. Haren arabera, inguruko etxeetako bizilagunak zein merkatariek kexatu egin dira, zarategatik eta zikinkeriatatik, besteak beste. Kexa horiek ez ei dira gaurko kontuak, urteetakoak baizik. Gainera, Riosek adierazi du teiltua eta fatxada egoera txarrean daudela, hainbat zati jausteko arriskuan: “Berziki horrek sortzen du kezka”.

Riosen ustez, gobernu taldeak ez du erabakiak hartzeko gaitasunik. Sozialistek gogorazti dute iazko aurrekontuetan 200.000 euroko partida bat gorde zutela eraikina botatzeko. Bai-

na, asmo hori ez da praktikara ekarri. Eraikina 70eko hamarkadan altxatu zuten, erreka- ginean, eta kokapen horrengatik, gaur egun lege kanpokoa da. Sozialistek diotenez, iaz URA agentziak –Eusko Jaurlaritzako uraren inguruko agentzia– obraren erdia ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Aukera hori galdu izana kritikatu dute, eta

Riosen arabera, inguruko etxeetako bizilagunak zein merkatariek kexatu egin dira

gobernu taldeari “utzikeria” egotzi diote. Eraikina berehala botatzeko eskatu dute.

Gazteen erantzuna

Gaztetxeko asanbladak sozialistei erantzun die: “PSE-EEK idatzitako artikulua testu demagogiko, alderdikoi eta oportunistar iruditu zaigu. Gaztetxearen irudia hondatzeko bakarrik erabili dena”. Lanean dabiltzala diote gazteek: “Eraikinaren egoera txarra dela-eta gure esku dagoen guztia egiten saiatzen gara”.

Asanbladakoek diote Gaztetxearen helburua herriko eremu sozial eta kulturalaren parte izatea dela, eta zabalik dagoela. Martitzenetan 17:30ean egiten dituzten batzarretan parte hartzeko gonbidapena egin dute.

BATXILERGOA
aurrematrikulak
MAIATZAREN
2TIK 14RA

IES JUAN OROBIOGOITIA BHI

Batxilergoak (D eredua):
Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak
Zientziak eta teknologia
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kalitateko Hezkuntza
Orientazio pertsonalizatua
Heziketa euskalduna
Irteerak eta ekintzak
Teknologia berriak
Ingurumen naturala
Talde txikiak

Olaburu, 3 48215 Iurreta Tel.: 94 681 04 61 e-maila: 015090aa@hezkuntza.net www.orobiogoitia.net

> DURANGO

Jesus Maria Pedrosaren oroigarri, bere izena ipiniko diote kale bati

ETak 2000n hildako PPko zinegotziaren oroigarria izango da; EAJk, PSE-EEK eta PPk onartu dute

> M. O.

Faustegoiaren kale bati *Jesus Maria Pedrosa kalea* izena ipiniko diote. ETak 2000n hildako PPko zinegotziaren oroigarria izango da, beraz. EAJk, PSE-EEK eta PPk onartu zuten mozioa martitzenean, ohiko batzarrean. Bildu eta Aralar abstenu egin ziren, ez daudelako ados kaleei pertsonen izenak ipintzeagaz, arriskutsua iruditzen zaie.

Juan Jose Gastañazatorrek (PP) Pedrosaren lana goraiatu zuen. “Ekintza publikoan lan egiteko balioak irudikatzen zituen. ETaren aurkako ideia politikoak defendatu baino ez zuen egin”. Pilar Riosek (PSE-EE), antzeko ildotik, Durangoren alde lan egin zuela: “Lan hau egiteagatik eraila izan zen”.

Urdaspal Bolinagak (Bildu) esan zuen 2011n toponimia ikerketa egin zuela aditu batek, eta horrek kaleei pertsonen izenik

ez ipintzeko gomendioa egin ziela, politikaria izan ala ez. “Diskordia sortzeko balio du”. Ikerketa horretarako 18.000 euro inbertitzea eta gero praktikan ez ipintzea egotzi zion EAJri. Goiztidi Diazek (EAJ) erantzun zuen ikerketa kontuan daukatela, baina gomendioen kasuan salbuespenak daudela.

“Ate bat zabaldu zenuten”

Dani Maeztuk gogoratu zuen, Pilar Ardanza alkateak 1999an erabaki zuela esangura politikodun izenik ez ipintzea, eta Pedrosa hil zutenean egoera errepikatu zela. Baina, irizpidea aldatzea leporatu zion EAJri; 2011n Leizaola eta Rubialen izenak ipintzea adostu zuten EAJk eta PSE-EEK. Izendapenak arrazoi politikoengatik egiteari buruzko kezka helarazi zien jeltzale eta sozialistei: “Hori oso arriskutsua da. Ate bat zabaldu zenuten, eta irekita dago”.



Martitzeneko batzarreko irudi bat; erdian, Gastañazatorre PPko zinegotzia.

> GARAI

Salmenta eta giro onekin, datorren urterako gogoz

> M. O.

Arrakastatsua izan zen joan zen domekan Garain egindako I. Landare eta Lorezaintza Azoka. Jende ugari bertaratu zen. Udalak, Urkiola Landa Garapen Al-

karteak eta Trumoitte kultur elkartek eratu zuten. Lehenengo balantze positiboa egin dute horiek: jenero ona, salmenta onak eta datorren urtean berriro egiteko gogoia.

Bisitari kopuruagaz eta eguraldi onagaz, giro ederra eduki zuten domeka goizean. “Denok harrituta gelditu ginen Garaira etorri zen jendetzagaz”, esan du antolatzaileetako batek.



Hainbat lagun, joan zen domekan, Garaiko azokan.

Herritarren laguntza eskertu gura du JAEDek 50. urteurrenean

Besteak beste, Oskorrik kontzertua eskainiko du maiatzaren 4an, Durangon



JAEDeko ordezkariak, eta, lurreta eta Durangoko alkateak atzo, urteurreneko ekitaldien aurkezpenean.

> JOSEBA DERTEANO

JAED sortu zutela 50 urte pasa direla ospatzeko, ekitaldiak antolatu ditu Durangon eta Iurretan eragiten duen elkarrekin. Ospakizunak herri bietako udalei zein bizilagunei esker ona adierazteko modua izango dira, Iñaki Gorriategi JAEDeko presidenteordearen esanetan: “Behar izan dugunean, aurrera egiteko bultzada eman digute, eta laguntza eskertu gura diegu”.

Uda osterako beste ekitaldi batzuk prestatuko dituzte-

la aurreratuta (pilota partiduak...), maiatzeko eta ekaineko hiru kontzerturen berri eman dute, denak doakoak.

Maiatzaren 4an, 20:00etan, Oskorrik bere ibilbideko abesti ezagunekin osatutako kontzertua eskainiko du Durangoko Andra Mari Basilikako portikoan. Eurekin batera, Durangoko Tabira musika banda, Jaizale Txistulari Elkartea, Herri Maite akordeoi taldea eta Bartolome Ertzila musika eskola ariko dira. Ekainaren 8an, 19:00etan,

Leioako Juan Bautista abesbatzak Vivaldiren musika gogoratuko du, Garbiñe Abendano sopranoak eta Margarida Lledó mezzosopranoak lagunduta. Kontzertua Iurretako elizan izango da.

Azkenik, ekainaren 29an, 20:00etan, Aula Boreal musika tresnen taldeak eta Durangoko Doinuzahar eta Galdakako Los Tonos Humanos abesbatzek Barroko sasoiko (XVII. mendea) musika ekarriko dute Durangoko Andra Mari basilikara.

> ATXONDO

Autobus geltokia egiteko 45.000 euro gorde dituzte

Astelehenean, 2013ko aurrekontuak onartu zituzten gobernu taldearen aldeko botoekin

> J.D.

Asteleheneko udalbatzarrean, 2013ko aurrekontuak onartu zituzten gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin. EAJk ezetz bozkatu zuen: “Gastuetan dirua beste modu batean kudeatu edo banatu zitekeela uste dugu”, azaldu zuten jeltzaleek. Rosa Elizburu alkatearen esanetan, “Aurrera egiteko behar dugun justuagaz osatu ditugu aurrekontuak, gastu handi edo arraroetan sartu gabe”.

Sarrerak eta gastuak 1.628.323 euroan orekatu dituzte. Inbertsioen atalak 192.000 euro ditu. Atal horretatik 45.000 euro errepideko bigarren autobus geltokia egiteko erabiliko dute. Elorriotik Durangorako norantzan badago dagoeneko garelaku bat errepede ondoan, baina Durangotik Elorriora-koan ere egin gura dute, errepede ondo-ondoan. Horrela, autobusak ez luke errepidetik irten beharko. Gaur egun, herri ba-

rrurantz sartu eta gaztetxe alboan geratzen da. Markesinarik ez dute erosi behar, badutelako bat aurretik erosita eta gordeta. Beste 40.000 euro Arrazolako etxebizitzetako (aparkaleku ondokoak) fatxadan agertu den umedadea konpontzeko erabiliko dituzte.

20.000 euroko beste inbertsio bat Urkuzuko baserriari dagokio. Udalak aurreikusita du kultur etxea egitea erai-kin horretan, baina orain, ezin daiteke inbertsio handi horretan sartu. Horren ordez, 20.000 euroekin eraikineko gun bat egokitu eta udal tresneria eta ibilgailuak bertan gordeko dituzte. Horrela, errenta aurreztuko dute urterik urtera.

Plan nagusia berbagai

Maiatzaren 3an, 18:30ean, Herri Antolamendurako Plan Nagusiari buruzko informazioa emango dute udalbatzar aretoan udal teknikariagaz batera.

> IURRETA

Kofradietako mendi bizikleta martxa antolatu dute biharko

>AITZIBER BASAURI

XXV. Kofradietako Mendi Bizikleta martxa antolatu du domekarako Iurreta Txirrindulari Elkartek. Aurten, gainera, 38 kilometroko ibilbide berria diseinatu dute Durango MTB taldearen laguntzagaz. Aita San Migel plazan egin dute hitzordua, 09:30ean. San Kristobalera bidea hartuko dute, beste bide batetik Magunaserara jaisteko: “Berrikuntza gehiagorekin, joan den urteetako zatirik onenak ere egingo ditugu”.

Bizkaiko Txirrindularien Federazioko egutegian sartuta dago martxa hori, eta izen-ematea egunean bertan izango da, 08:30etik aurrera. Antolatzaileek azaldu dutenez, lizentziadun txirrindulariek bost euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 17 euro. Informazioa: www.iurretatxirrindulari.com webgunean edo e-mailez: iurreta.idazkari@gmail.com.

U! GAURSAN

HITZEMATEN DUGU ZURE AUTOAZ HARRO EGONGO ZARELA

Andonik esana

RENAULT CLIO DYNAMIQUE
1.5 dCi 90 HP
2012an matrikulatua
10.500€

RENAULT MÉGANE EXPRESSION
1.5 dCi 110 HP
2012an matrikulatua
12.950€

RENAULT LATITUDE EXPRESSION
2.0 dCi 150 HP
2011an matrikulatua
16.500€

RENAULT SCÉNIC EXPRESSION
1.5 dCi 110 HP
2012an matrikulatua
14.950€

RENAULT OCASIÓN

EGON ZAITEZ HARRO ZURE AUTOAZ

*Prezio guztietan sartuta dago bigarren eskuko ibilgailuentzako Pive Renault plana eta 4.000 €-ko finantziakzioa Renault Financiacionesekin. Gerta daiteke bistaratutako bertsioa bat ez etortzea eskaintzen denarekin. Baliozko eskaintza izakinak agortu arte.

Renault gomendatu **elf**



GAURSA

ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. DON DIEGO LOPEZ HAROKO KALE NAGUSIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO LETXUNBORRO HIRIBIDEA, 89. TEL. 94 363 91 22. IRUN. OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL. 94 382 09 74. EIBAR
www.gaursaautoak.com

BILBO BERRI

JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU
www.bilboberri.com

> DURANGALDEA

Duela bost urte baino 4.200 langabetu gehiago Durangaldean

Eskualdeko egoera aztertu du LABek; datu horiek eman ditu maiatzaren 1erako ekintzak aurkeztean

> M. ONAINDIA

6.800 lagun daude lan barik Durangaldean, 2008an baino 4.200 gehiago. LAB sindikatuak emandako datua da. Eulate Zilonizau-

rrekoetxeak, sindikatuko eskualdeko arduradunak, adierazi du larriena ez dela datua, kopuru hori gorantz doala baizik. "Instituzioek ez dute ezer egiten. Po-

litikak aldatu behar dira", esan du. Hirukoiztu egin da langabetzia-tasa, eta Durangaldeko lan egoera larria dela ohartarazi du. Iurretako tasaren igoera izan ei da handiena. Bestalde, industria arloan, Durangaldeko langabetzia tasa %31koa dela azaldu du, eta Bizkaikoa %14koa.

Horrez gainera, lan hitzarmenen gaiak ere kezka azaldu dute. Uztailaren 7a baino lehen berritzen ez diren lan hitzarmenek ez dute baliorik edukiko. Hitzarmenik ezean, estatu mailako hitzarmenak edota beharginen estatu-

tua aplikatuko direla ohartarazi dute. Adibidez, Durangaldean sektore garrantzitsuena metala izanik, hitzarmen barik 640 euroko soldata aplikatuko zaiela-eta kezka agertu dute.

Zilonizaurrekoetxeak adierazi du borrokarako garaia dela, "aski dela esateko unea". Horregatik, maiatzaren 1ean, Langileen Nazioarteko Egunean, manifestazioa egingo dute Durangon, 12:30ean, udaletxetik hasita.

Maiatzaren 1ean, manifestazioa egingo dute Durangon, 12:30ean, udaletxetik hasita



LABeko kideak, sindikatuko egoitzan, eguaztenean.

79 lagun jaso dituzte neguan, Amankomunazgoaren aterpetxean

Amankomunazgoak lehenengo aldiz kudeatu du zerbitzu hori

> M. O.

Neguko aterpe zerbitzuaren balantzea aurkeztu zuten atzo Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek eta Nerea Izarra teknikariak. Errotagaina aterpetxean eskaini dute zerbitzu hori, eta adierazi dute 79 lagun jaso dituztela. Amankomunazgoak aurten kudeatu du lehenengoz zerbitzua, orain arte udalaren esku egon da-eta.

Iaz baino hogeitaz herriar gehiagok hartu dute aterpe Errotagainan. 2012ko abenduaren 1etik 2013ko martxoaren 31ra bi-

tartekoak dira datuak; epe horretan egon da zerbitzua martxan. Udaltzaingoak bidali izan ditu lagunak aterpera, eta Zarrabeitiak euren lana goraipatu du: "Kontuan eduki behar da etxerik

Hurrengo negurako zerbitzua hobetzea dute helburu, eta azaroan zabaldu gura dute

bako pertsona gehienak Durangora datozela, eta Udaltzaingoak lan handia egin du horiek aterpetxera eramateko". Hiru egunez egon zitezkeen gehienez, eta epea luzatzeko Gizarte Ekintzako teknikariek aztertzen zuten kasua. Etxe bakoetatik gehienak, 47, EAE eta Espainiakoak izan dira. Hamar lagunentzako lekua egon da. Gaua pasatzea, garbitzeko aukera, eta afaria zein gosaria eskaini dituzte.

Hurrengo negurako zerbitzua hobetzea dute helburu, eta azaroan zabaldu gura dute.



Izarra eta Zarrabeitia, atzo, prentsaurrekoan.

> BERRIZ

Astelehenean bigarren bider batuko da jai batzordea

> AMAIA UGALDE

Hilabete bi eskas geratzen dira San Pedro eta Santa Isabel jaiak hasteko, eta honez kero jaietako ekitaldi batzuk erabaki dituzte jai batzordeko kideek. Datorren astelehenean, apirilak 29, izango da batzordeko bigarren batzarra, 20:00etan, kultur etxean.

Lehenengo batzarrean hamaialau pertsona inguru batu ziren, eta parte hartu gura duten berriztarrek oraindik badaukate aukera taldean sar-tzeko.

Ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitarteko egitaraurako hainbat ekintza zehaztu dira oraingoz: Kukai eta Ttamtakaren dantza ikuskizuna, Toundra taldearen kontzertua, Vaiven Do not Disturbe kale antzerkia... Erromeriak eta txapelketak ere zehazten hasi dira. Datozen batzarretan egitaraua osatzeko ideiak zehazten jarraituko dute.

> ABADIÑO

Maiatzaren 3ra arte eman daiteke udalekuetan izena

Uztailaren 1etik 12ra bitartean egingo dituzte udalekuetako eta udako ludotekako saioak

> I.E.

Zabaldu dute Abadiñoko Udalaren udalekuetan eta udako ludotekan izena emateko epea: maiatzaren 3ra arte eman ahal izango da izena. Mediatekan edo Errota kultur etxean entregatu daitezke eskabideak.

Udalekuei zein ludotekari buruz informatzeko, batzarra egingo dute ekainaren 21ean, Errotan

Abadiñon erroldatutako 3 eta 5 urte bitarteko umeei dago zuzenduta ludoteka; eta 2002 eta 2006 urteen artean jaiotako neska-mutikoei udalekuak. Uztailaren 1etik 12ra bitartean egingo dituzte saioak.

Azaldu dutenez, 60 euro ordaindu behar da matrikula bakoitzeko, baina bi anaia-arrebak edo gehiagok izena ematen badute, deskontua egingo diete.

Udalekuei zein udako ludotekari buruzko informazioa emateko, batzarra deitu dute udaleko arduradunek: ekainaren 21ean, 18:30ean, Errota kultur etxean egingo dute.

Zazpi urteko kartzela zigorra ezarri diote Zarrabeitiari

> I.E.

Zazpi urteko kartzela zigorra ezarri dio Parisko auzitegiak Eneko Zarrabeitia abadiñarrari: ETAkidea izatea egotzita, zortzi urteko kartzela zigorra eskatzen zuen fiskaltzak.

Astelehenean eta martitzenean egin dute Eneko Zarrabeitiaren eta Aitzol Iriondoren kontrako epaiketa. Frantziako Gerde herrian atxilotu zituzten euskal herritar biok, eta lau urte eta erdi eman dituzte Frantzian espetxeratuta.

Familiartekoak zein hainbat herrikide bertaratu dira Eneko Zarrabeitiaren epaiketa jarraituz: "Oso lasai eta indartsu" topatu dutela adierazi dute familiakoek.

> DURANGALDEA ASTEON**Azoka egingo dute bihar goizean, Muruetatorren**

Muruetatorreko auzo elkarteak azoka antolatu du biharko. Goizeko 10:30etik aurrera egingo dute, eta herritarrei bertan parte hartzeako gonbidapena egin diete. Etxean sobera eduki ahal diren gauzak jasotzeko prest dago elkarteak; gero, eurek salduko dituzte bertan.

AISA ikastaroak eskainiko dituzte Berrizen

Euskara ikasteko ikastaroak eskainiko dituzte Berrizen etorkinentzat, udaberrian. AISA moduan ezagutzen diren ikastaroak dira. Udaleko Euskara Arlotik esan dute azken urteetan taldea ezin osatu ibili direla, baina aurten lortu dutela. Ongizate Arloagaz elkarlanean sustatuko dute.

**Segurtasunaren Astea egin dute Iurretako Smurfit Kappa Nervion enpresan**

Fabrikako beharginei, euren familiei zein Durangaldeko formakuntza zentroe bideratutako hitzaldi, tailer eta ekintzak egiten dihardute Smurfit Kappa Nervionen. Bihar arte iraungo dute ekitaldiek. Astelehenean, zuzendari nagusi den Rafael Sarrionandiaren sarrera hitzaldiagaz hasi zituzten jardunaldiak. Sarrionandiak gogorarazi zuen 573 egun daramatzatela bajarik gabeko istripurik barik.

> MAÑARIA**Gaur arratsaldean zabalduko dute Errekondoko kultur etxe berria**

Areitio zinegotziak azaldu du liburutegia dinamikoa izatea gura dutela

> M. ONAINDIA

Gaur arratsaldean egingo dute Errekondoko kultur etxearen inaugurazio ekitaldia, 18:30etik aurrera. Herritarrek bertatik bertara ikusi ahal izango dute zerbitzu berria. Hemendik aurrera, frontoiko aretoan barik, bertan egongo da liburutegia. Ainar Areitio zinegotziak azaldu du liburutegia dinamikoa izatea

gura dutela. Irakurtzeko txoko lasaia egokitu dute, eta ikasteko aparteko gunea ere bai; KZgunea ere bertan dago. Liburutegian hainbat ekintza egiteko esperantza agertu du Areitio, batez ere, ume eta gazteei begira. 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik kultur etxea. Ikasleei gainerako orduetan erabiltzeko aukera ematea ere aztertzen dabilta.

Goiko solairuan, jubilatuentzako lekua sortu dute. Bertan batu ahal izango dira, eta Ursula Donea nagusien elkarteko ekintzak ere hantxe egin ahal izango dituzte.

2008an erosi zuen udalak Errekondo, eta bost urtera zabaldu dute. Areitio adierazi du kultur etxearen inaugurazioa gertaera garrantzitsua dela.



Liburutegia erabiltzeko prest dago; gaur inauguratuko dute.

> IZURTZA**Galdeketa parte hartzera deitu dituzte herritarrek**

Bihar etxebizitzaren gaineko galdeketa egingo dute

> J.D.

Garauntzan etxebizitzak egiteko bost hautagaien artean zein aukeratu erabakitzeko, herritarren iritzia jaso gura du udalak. Hala, bihar hautagai den gaineko informazioa egongo da frontoian (11:00etatik 14:00etara) eta, ondoren, hautagai bakoitza puntuatzeko aukera izango du-

te herritarrek, udaletxean egongo diren txartelen bidez: "Guretzako garrantzitsua da ahalik eta herritar gehienek iritzia jasotzea. Horregatik, parte hartzeko deia egiten diegu", azaldu du Luis Ballarin alkateak. Astelehenean ere (11:30-15:00) iritzia jasoko dituzte, eta arkitektoa egongo da dudak argitzeko.

> OTXANDIO**Asteburuan argizaiolen gaineko erakusketa ikusgai**

Alberto Barrondok egurrean landutako 35 bat argizaiola erakutsiko dituzte bolalekuko aretoan

> J.D.

Asteburuan, egurrean landutako 35 bat argizaiolagaz osatutako erakusketa egongo da ikusgai bolalekuko aretoan. Oletan bizi den Alberto Barrondo da argizaiolen egilea. Bihar 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik, eta domekan, goi-

Zapatuan goizez egongo da zabalik, eta domekan, goizez zein arratsalde; sarrera doakoa izango da

zez zein arratsalde: 12:30etik 14:30era, eta 17:30etik 20:30era. Sarrera doakoa da. Argizaiola, sasoi batean hildakoei argia eroateko funtzioa zuen egurrezko taula bat zen, argizaria bueltan kiribildua zuena.

Liburu azoka atzeratu dute

Bestalde, asteburu honetan udalak antolatu gura zuen liburu azoka atzeratzea erabaki dute, iragarrita dagoelako hotza eta elurra egingo dituela. Oraindik ez dute beste datarik finkatu. Erabakitzean, webgunean iragarriko dute.

AURREMATRIKULAZIO DATAK

- DBH:
 - Gela egonkorra
 - Laguntza gelak
 - Curriculum anitzak eratze programak
- BATXILERGOAK:
 - Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleanitza)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleanitza)
 - Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)
- ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)
- HEZIKETA ZIKLOAK
 - Erdi mailako heziketa zikloa: Landa Ingurune Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D eredu)
 - Goi mailako heziketa zikloa: Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena (D eredu)

Frai Juan Zumarraga, 21-23, DURANGO - Tel.: 94 681 77 30-94 681 73 25 - Fax: 94 681 02 58
e-posta: fjzumarraga@euskalnet.net - **www.durangobhi.net**

Batxilergoak
**maiatzaren
2etik 14ra**

Institutuan,
jakina!!

IES Frai Juan de Zumarraga - Durango BHI
institutua
Durango

➤ Berbaz

KOLDO TELLERIA ETA AMAIA ALBENIZ | Arkitektoak dira | Hiria kolektiboko kideak

“Gu kanpoko teknikariak gara; zaldibartarrak dira Zaldibarren adituak”

Zaldibar zelan dagoen eta zelan garatu gura duten hausnartuko dute herritarrek Plan Orokorra berridazteko prozesuan. Hiria kolektiboko profesionalen laguntza izango dute; tartean hainbat diziplinatako jendea dago: arkitektura, soziologia, ekonomia, artea...

➤JOSEBA DERTEANO

Etxeak eraikitzea, industriaguneak egitea, errepideak... Hirigintza berba entzuterakoan, halakoak etortzen dira gogorra...

Koldo Telleria: Hori izan da askotan orain arte egin dena, eta uste dugu oso jende gutxiren artean egin dela. Hirigintzak, herrigunetik aparte, gainera, landagunea ere hartu behar du. Azken finean, plan orokorra ez da bakarrik etxeak egitea, bizimodu bat aukeratzea da. Norantza joango den herria, zer helburu izango dituen hemendik hamar urtera... Orain arte, helburu ekonomikoetan pentsatu da batez ere, eta gauza asko hartu behar dira kontuan.

Amaia Albeniz: Hirigintzak bizitzagaz dauka zerikusia, bere alor guztietan. Etxeak egiteko moduak zerikusia dauka elkarbizitza ereduan; plaza inguruetan egin edo bananduta, hartu-emanak desberdinak izango dira. Horregatik diziplina askotako jendea gaude, ahalik eta esparru gehienak kontuan hartzeko.

Orain arte, hainbat zaldibartar elkarriketatu dituzue. Zelako informazioa jaso duzue?

K. T.: Askotarikoa eta lehen eskukoa. Gu, azkenean, kanpotarrak gara, eta teknikariak. Ikusten ari gara herrian zer zati desberdin dauden, auzo asko dago, orokorrean, zaldibartarra izatearen sentimendu handia dago... Ari gara ikusten zer kolektibo dauden Zaldibarren, denek parte hartzea gura dugulako. Elkarriketekin jarraitzen dugu oraindik.

Lehenengo tailerra zapatuan egingo duzue: beroketa tailerra. Zer izango da?

A. A.: Alex Carrascosa artistak gidatutako dinamika batzuren bidez, norbanakoen interesen eta interes kolektiboen hartu-emanak landuko da. Lan ludikoa da, arte plastikoen bidez egitekoa.

K. T.: Dialogo berriak sortzen ahaleginduko gara zapatuan. Euskal Herrian, orokorrean, gaztazka asko izan ditugu, eta beste elkarriketa batzuetarako bidea zabaltzeko lana egin du Alex Carrascosak.



“

Hirigintzak bizitza ereduagaz dauka zerikusia; etxeak plaza inguruan edo bananduta egin, hartu-emanak desberdinak izango dira”

“

Herritarrei egindako elkarriketetan ‘nik ez daukat ezer esateko’ esan digute, eta gero informazio piloa jaso dugu”

Berba egitea eta hausnartzea izango da lehen pausoa orduan?

K.T.: Prozesua Zaldibar eitten deitzen da. Lehen blokea Zaldibar berba eitten izango da; herria zelan dagoen eta herritarrek zelan bizi diren jakiteko. Bigarren blokea, Denon Zaldibar eitten; denon artean erabakiko dugu zeintzuk diren gabeziak, lehentasunak...; eta hirugarrena Zaldibar ereitten, erabakiak hartu, eta erabaki den hori guztia herritarrekin kontrastatzeko.

Herritarrek gai horietatik urrun sumatzen dituzue?

K.T.: Harrigarria da elkarriketak egitera joan eta esan digutela, “nik ez daukat ezer esateko”, eta ordu beteko elkarriketa egin, eta informazio piloa jaso gero. Jendea ez da kontziente bere egunerokotasuneko bizipenak zenbaterainoko garrantzia duten. Zaldibarren izan dituzten esperientziak batzea ezinbestekoa da. Gertatzen da, gaurdaino ez dela egin. Guk ezagutzak badauzkagu, baina zaldibartarrak dira Zaldibarren adituak.

Jakituria handia dute, eta hori gurekin konpartitzea gura dugu. Ahalik eta jende desberdin gehien etortzea nahiko genuke, norbanakoak eta elkarreatako jendea.

A.A.: Ikusi behar dute, orain arte egindakoa norbaitek erabaki zuela garai batean, etorkizunerako zer gura den herritarrek eurek esan behar dutela.

Hiria kolektiboko lanetan genero ikuspegia ere lantzen duzue.

A.A.: Genero ikuspegia, edo berdina dena, eguneroko bizimoduari buruz berba egitea. Orain arte, ekonomiak eta lan produktiboak eduki du garrantzia hirigintza kontuetan, eta lehentasunak aldatu behar dira. Urte askoan trafikoa ordenatzeko ahalegina egin da, eta burukomin handia eman du horrek; ez da kontuan eduki oinezkoak zelan mugitzen diren, gurpildun aulkiak pasa daitezkeen... Ekonomia baino, pertsonak ipini behar dira prozesuaren zentroan. Horregatik, zenbat eta parte-hartze anitzagoa egon pro-

zesuan, orduan eta gai gehiago jorratuko dira.

K.T.: Landa inguruan ere berdin gertatzen da, ekonomikoki gartatu da, eta sentsibiltate afektiboa edo harreman asko apurtu dira lurrarekin.

Udal askotan, urte askoan egoten dira plana berritzu barik. Errebisio bat egitea, zer neurri-arte da garrantzitsua?

A.A.: Plan orokorra asmoen adierazpen moduko bat da: hemendik joan gura dugu. Gero, gauza puntualak egin beharko dira, baina helburuak ipintzea da kontua.

K.T.: Aldaketa txikiak egiten dituzte askok, epe luzeko perspektiba barik. Ez badaukazu plan orokorrik, erabakiak ez dira “hau egingo dugu gizartearekin edo inguruarekin beste harreman bat lortzeko”. Garrantzitsua da herriek helburuak izatea.

Bihar, zapatua, 11:00etan izango da lehen saioa frontoian. Informazio gehiago: zaldibareitten.com atarian.



500. ale hau zuri
esker bete da...



Maiatzaren 11n

10:30

Bizikleta festa Durangoko Ezkurditik
irtenda (Ibilbidea: Durango eta Iurreta)

Argazki Rallya egun osoan zehar

12:00

Dantza saioa Ezkurdin: De Norte a Sur eta Kriskitin
taldeak. Ondoren, L'Atelierreko gazteen Flash
Mob-a. (Euria bada Andra Mariko elizpean).

Oilasko errea banatuko da

13:00

Kantubira musikariek eta
bertsolariek lagunduta, Durangoko
Alde Zaharrean zehar

14:30

Bazkaria Plateruenean

Txartelak Plateruenean,
Berbaron eta Anboton salgai
(15€ nagusiak / 10€ umeak)

15:00

Umeentzako ludoteka

Oxabi taldeak bazkalostea girotuko du

17:00

Anbotoren 500. alearen inguruko ekitaldia

20:00

Luhartz

23:00

DJ Xabi Urliaga

Zatoz gurekin ospatzera!



Iritzia

> GUTUNAK



gutuna@anboto.org
eguzteneko 17:00ak arteko epea

Hekimenek elkartasuna adierazi nahi dio Lander Arbelaiz 'Argia' aldizkariko kazetariari, eta Ertzaintzaren jarrera gaitzetsi du

50 hedabidetik gora batzen ditu Hekimenek, tartean Anboto Komunikabideak

Hekimen Euskal Hedabideen Elkartek elkartasuna agertu nahi dio Lander Arbelaiz Argia aldizkariko kazetariari, AskeGunea husteko operazioaren barruan jasotako tratua dela eta. Hekimeneko kide sortzaileetako bat da 'Argia' aldizkaria, eta Hekimenen helburuetako bat da euskal hedabideen presentzia eta eragina handitzea gizartean. Horretarako, ezinbestekoa da gero eta informazio kalitatezkoagoa eskaintzea. Hekimenen ustez, Lander Arbelaiz informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen Ertzaintzak, eskuan zeukan akreditazioa kontuan hartu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean.

Hekimenek, gainera, guztiz ezegokitzat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarrizteko. Kazetarien oinarritzeko eskubideetako bat da informazioa ahal bezain hurbilen eta, batez ere, nahi duten ikuspuntutik eman ahal izatea. Hori da kazetaritza. Hori da gure lana.

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen Elkartea

> KLIK BATEAN



Kontainerak bidearen bestaldean

Nok erabaki dau kontenedorak kamiñuen beste aldera bieltzie? Normala da basurie bota bidan baktzien bidien beste aldera pasau biher izetie?

Iurretako Bildu

SEI HANKAKO MAHAIA

URDASPAL
BOLINAGA

Bildu




Deabruak buztana luze

Pasa den asteko zutabearen PNV-ko bozeramaileak esandako hitzek erabat harrituta utzi gaituzte. Bertan, Bilduren egunero-ko lana eta gezurrak sinonimoak balira bezala aipatzen ditu bozeramaile andreak. Gezurretan edo egia ezkututzen nor dabilen azaldu nahi dugu.

Bilduk ez dio "dirutza ederra" daukanik udal gobernuak, ondo baino hobeto dakizuelako ez dela egia. Aurreko urteetan exekutututako proiektuak dira "soberakin" izenez ezagutzen direnak udal honetan, eta horiek ez dira aurrezkiak. Soberakin horietatik batzuk aipatu nahi ditugu (2005. urtetik arrastatzen gabiltzan San Fausto zentro zibikorako 2.456.119,24 € eta Urki Hegoalderako 1.294.475,74 €, haur eskola baterako 815.000 €, errotonda baterako 580.963,43 €...).

Zorrari dagokionez, alderdion helarazi zaizkigun datu eta dokumentuen arabera, udalak 10.950.316,24 €-ko zorra dauka. Guk badakigu datu hori ez dela zuzena, jaso dugun dokumentazioan akatsak daudelako, baina 7 milioi ingurukoa dela esan genezake. Beraz, nor ari da gezurretan? Oraindik zenbait kreditu eta Landako Erakustazokako eraikina ordaintzen daudenean? Iaz zorretan geunden; aurten ere, zorretan gaude; eta udal kudeaketa aldatzen ez bada, urte batzuetan, zoritxarrez, horrela jarraituko dugu.

Oraindik, apirilaren 26 honetan, ez daukagu 2012 urteko likidazioko daturik, hainbatetan eskatu arren. Likidazioa heltzen zaigunean, jakingo dugu benetan udal honen egoera ekonomiko erreala zein den eta zenbatekoa den, 2013 urtera begira. Bildutik argi daukaguna da, orain arte esandako guztian ez dugula gezurrik esan, eta beste behin ere eskatzen dugu, udal honen egoeraz herritarrei informatzea.



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215
astekaria@anboto.org

- izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko apirilaren 26a
11. urtea - 498. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> BERTSOLARITZA



“Feminismoak balio dit edozein gai beste era batera begiratzeko”

Platerueneko Bertsozale Eskola zabalduko du Uxue Alberdik maiatzaren 9an. Feminismotik jardungo du

> ITSASO ESTEBAN

Zergatik, noiztik, begiratu bertsolaritza feminismotik?

Gai hau nahiko berria da bertsolaritzan: Maialen Lujanbiok 2005ean eskaini zuen bere esperientziari buruzko berbaldia mugarrria izan zen. Etiketa hori ipini ez bazion ere, edukia guztiz feminista izan zen. Askorentzako errebelatzailea izan zen hitzaldi hori, eta ordutik, gu ere hasi ginen feminismoan janzten, nola jokatzeko dugun ulertzen, eta praktikoki eta teorikoki ere ikasten genuena bertsolaritzan aplikatzen: emakume eta feminista bezala nola kantatu nahi genuen erabakitzen.

Zer jaso zenuten hitzaldi hartatik? Zergatik izan zen mugarririk?

Nik uste mugarrria izan zela, Maialenek hitzetan jarri zuelako gu aspalditik sentitzen ari ginea. Inportantea da kontzientzia hartzea ez garela neutroak, inor ez dela neutroa, gure sexuaren arabera kargatuta daukagula generoaren motxila, eta horrek bizitzan eta bertsotan eragiten digula. Emakumeok ez gara bertsolaritzaren jardunak eskatzen dituen hainbat gaitasun garatzeko trebatuak izan: ez gaituzte hezi zentroa izateko, ezta arriskatzeko ere, hanka sartzeko, edota

gure iritzia azken muturreraino mantentzeko... Emakume askori bereziki kostatzen zaizkigun berezko ezaugarriak dauzka bertsolaritzak.

Gai horiei buruzko gogoetak konpartitzeko, Plateruenean eskainiko duzuna bezalako berbaldiak eskaini dituzue.

Bai, eta tailerretan parte hartu ere bai. Orain 10 urte, inork ez zuen honetaz berbarik egiten; orain ahotan darabilgu, behintzat. Izan ere, 2003an bildu ziren bertsotan eta bertsoaren inguruan zebiltzan emakumeak lehenbiziko aldiz. Beraiek euren nortasunari egozten zizkieten zenbait ezaugarri eraikuntza sozialaren ondorio zirela konturatu ziren: ez direla kasualitatea.

“

Emakumeok ez gara bertsolaritzaren jardunak eskatzen dituen hainbat gaitasunetan trebatuak izan”

Zer eskaini dizu zuri begirada feminista horrek?

20-22 urterekin hasi nintzen kontzientzia feminista hartzen, eta aurkikuntza izan da niretzat: nire burua, bertsolaritza, bertsotan sentitzen dudana, eta mundua ulertzeko era. Feminismoak tresnak ematen dizkizu generoa deseraikitze, eta saiatzeko inertzietatik kanpo kantatzen. Bertsolari bakoitzak pentsatu behar du nola kokatzen den, esaterako, sexuaren, harremanen, edota egoera politikoaren aurrean. Feminismoak eman dit talaia bat gauzei ertzetik, ezkerretik, modu sortzailean begiratzeko. Balio dit gai guztiei beste era batean begiratzeko.

“

Feminismoak eman dit talaia bat gauzei ertzetik, ezkerretik, modu sortzailean begiratzeko”

Zein da hitzaldian transmititu gura duzun ideia nagusia?

Gure asmoa ez da inor epaitzea, gu lagundu gaituen teoria bat eta tresna batzuk plazaratzea baizik. Ideia nagusia da, ez dezagula pentsatu neutroak garenik; bertsolaritza ez da neutroa, bertsolariak ez gara neutroak, ezta entzuleak, epaileak, edo gaiak ere. Emakume eta gizonak oso modu desberdinean jarduten dugu, oso modu desberdinean epaitzen dugu gizon bat edo emakume bat, oso rol desberdinak espero ditugu gaitan... Hori dena feminismoaren tresnekin saiatzen gara ulertzen, eta deseroso sentiarazten gaituen hori aldatzen.

Zelakoa izango da berbaldia?

Teorikoa da, baina mami guztia anekdotekin eta adibide praktikoez, gertatutako gauzei azaltzen saiatzen gara. Anekdotak oso graziosoak dira, eta jendeak barre asko egiten du hitzaldietan. Amaieran, iritziak trukatzeko aukera ematen dugu beti.

Esaterako, zelako egoerak kontatzen dituzu berbaldian?

Hizkuntza ez dela neutroa esaten dugu, esaterako, eta hori anekdota batekin azaldu: Jon Maia eta biok geunden bertso afari batean, eta maleta handi bat atera ziguten txapel, peluka eta hainbat objektuekin. Momentu batean bibradore bat atera genuen maletatik: hasi ginen bibradoreari, eta zakilari buruz kantatzen. Oso erraz ari ginen, eta jendea barrez: oso ondo hartzen baitugu denok zakilaren inguruko umorea. Oso ohituta gaude. Une batean, baina, “egongo gara askatasunean zakilaz adina txiste aluaz egiten ditugunean” kantatu nuen, eta publiko guztia isildu egin zen, aulkietan deseroso mugitzen hasi ziren. Saioa amaitzean, Jon Maiak berak esan zidan: “25 urte daramatzat plaze-tan, eta hau izan da ‘aluaz’ esan dudana lehenengo aldiz”. Horrek ikustarazten du errealtate osoa: gizonen sexualitateaz eta desiraz etengabe kantatzen da; emakumeen desira beti da objektua.

Elgetako Antzokia
margo erakusketa

Martxoaren 25etik maiatzaren 2ra

Enrique Larramendi
tel. 607 460 264
mglarramendi@gmail.com



> PINTURA

Margolariek Berrizko kale eta txokoak hartuko dituzte bihar

Kaleko Pintura lehiaketa egingo dute bihar, 10:00etan hasita, Berrizen

> ITSASO ESTEBAN

Durangaldeko eta ingurueta margolariak batuko dira Berrizko kale eta txokoetan, bihar goizean, Kaleko Pintura lehiaketan. Herrian oinarrituriko margoak egingo dituzte parte-hartzaileek.

Hamalagarren aldia da Berrizko Udalak lehiaketa hau an-

10:00etatik 14:30etara arteko tarte edukiko dute parte hartzen duten artistek euren margolanak aurkezteko

tolatzen duena, eta aurreko edizioetan bezala, 16 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du biharkoan ere. Berrizko kultur etxean, 09:00etatik 10:00etara zigilatuko dituzte parte hartu gura duten margolariek euren koadroak egiteko erabiliko dituzten euskarriak, eta horie-

tan burutuko dituzte euren margolanak. Lau ordu izango dituzte artistek Berrizen aire zabalean osaturiko margolanak aurkezteko: 14:00etatik 14:30era entregatu ahal izango dituzte lanak.

Lau sari izango dira jokoan lehiaketan: 600 eurokoa lehenengoa, 500ekoa bigarrena, 400ekoa hirugarrena, eta 300ekoa berriztar batek aurkezturiko lan onenarentzakoa.

Maiatzaren 17ra arte, Berrizko kultur etxean izango dira lehiaketara aurkezturiko lanak bisitariarentzako ikusgai.

GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Berbaroko kidea



Erresistentzia izpiak

Orrialde asko bete ditu joan den astean albiste batek, egunkari digital zein paperezkoetan, elkartasun eta erresistentzia ekimen interesgarri baten kariatara. Irudi, soinu eta txioek, ehunka, milaka, bazter guztiak bete dituzte gorrenari ere tinpanoak zulatzeraino. Jakin-min handia eta nolabaiteko entusiasmoa piztu duen arren, hemengo gai eta egoera soziopolitikoarekin etsita dagoela entzun diot anbulatorio-ko ilaran gaudela. Berbetan segitu dugu, eta itxaroteaz gogaituta, kafe bat hartzera abiatu gara. Hantxe aitortu du, gazteak esnatu eta ernatu direla dirudi, aro berri baten atarian egon gaitezkeela aipatu dute askok, baikortasunik ez horratio. Horren harira, atzerriratu zen poeta ekarri du gogora; hark dioen lez, denok bizi gara kartzelan, horixe baita gizarte eredu hau; aldea da batzuenak leihoak dituela eta, beste batzuenak, ordea, ez. Esan diot leihoa duten horietara eguzki izpiak sartzen direla noiz edo behin, eta horixe gertatu dela egunotan, eta asko lagun deza-keela leihorik ez duten beste espetze horiei argia eta haizea sartzeko zuloa egiten.

Lagunak uste du aldebakarretik datozen mugimenduak argi izpi ahulak direla, nekez zulutuko dituztela harritzar-rrak eta, lehenik eta behin, bizilagunen artean urteetan erai-ki dugun hormatzarra eraitsi beharko genukeela. Gertakizunari balio estetiko handia ikusten dio, emozioak piztu dituela dio. Bidegabekerien kontra borrokan jardundakoa da bera, baina akituta dago. Berarentzat, gaur egun, benetako askegunea literatura dela entzun diot, babesleku eta iheslekua ere hor topatzen duela eta leihodun espetxean bizitzen laguntzen diola. Desobedientzia, erresistentzia, matxinada..., berba ederrak, kontzeptu zahar-rrak, bere erara egokitu ditu.

> LABURBIRA

Topagunearen eskutik, film laburrak antzokian

Zortzi film labur eskainiko dituzte Plateruenean

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak antolatutako Laburbira ekimenean aurkezturiko film laburren emanaldia izango da maiatzaren 2an, 19:30ean, Durangoko Plateruenean. Ziklo horretan aurkezturiko zortzi film eskainiko dituz-

Deneriko estiloetako filmak izango dira: dokumentalak, fikziozkoak, animaziozkoak zein sormenezkoak

te Durangoko Kafe Antzokian. Denetarik estiloetako filmak izango dira ikusgai: sormenezkoak, dokumentalak, fikziozkoak zein animaziozkoak.

Koldo Almandoz edo Telmo Esnal lako ibilbide luzeko zinegileen zein sortzaile berrien film laburrak ere izango dira bilduma horretan.

Euskarazko ikus-entzunezko produktzioa ezagutzera ematea, eta herrietako kultur eskaintza aberastea dira Laburbira zirkuituaren helburu nagusiak, eta hamargarren urtez antolatu du Topagunea federazioak.

> MUSIKA

Hiru abesbatzen saioa aukeran Durangon, bihar

Orfeoia, Abes Kimu eta Coral Zornotza ariko dira

Mireia Izagirrerren zuzendaritzagaz jardungo dute Durangoko Santa Ana elizan, bihar, Zornotzako Coral Zornoza eta Abes Kimu abesbatzek. Fernando Urainek jardungo du, bestetik, kontzertu horretan Durangoko Orfeoia zuzentzen.

Kontzertuaren lehenengo partean abesbatza bakoitza bakarrik ariko da, baina elkarrekin ere kantatuko dute

Bihar, 20:00etan da emanaldia, eta doakoa izango da sarrera.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, abesbatza bakoitza bakarrik ariko da kontzertuaren lehenengo partean, eta elkarrekin kantatuko dute hiru abesbatzek, amaieran.

Bizkaiko abesbatzen federazioak urtero antolatzen dituen Udaberriko Kontzertuen barruko emanaldia da. Laurogehitik gora abesbatzek parte hartzen dute egitarau honetan, eta Bizkaiko beste horrenbeste herritan eskaini dituzte emanaldiak.

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Edinara Urreta Jainaga

MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.

BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA
Eitua Industriagunea, 56
Tel./Faxa: 94 682 78 90
48240 Berriz (Bizkaia)
macober@movistar.es

Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak • Isolamenduak
- pladurra... • Eskaintzak lehen mailako zeramiketara
2. mailako baldosak trastelekuetarako.

Den-dena MACOBERren, Berrizen!

JAIIAK!

San Prudentzio

2013ko APIRILA | MATIENA-ABADIÑO



*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu
abadiñar guztioi!*

EROSKI

TERRAZAK ETA LORATEGIAK
MOMENTU PAREGABEAK



JAIEN EGITARAUA

Apirilaren 26a, barikua

19:00 Kartel lehiaketaren sari banaketa, Errota kultur etxean.

23:00 Durangaldeko Maketa Lehiaketako partaideen kontzertua, Traña plazan: Ilunbeltzean, Raxfer eta Doktors Klub. Udaleko Gazteria arloa.

Apirilaren 27a, zapatua Donien Atxaren Eguna

09:00/ 16:00 Aretoko futbol partiduak erabilera anitzeko pabiloian. Traña-Matiena herri eskolako IGEk antolatuta.

10:00 Saskibalo partiduak frontoian. Traña-Matiena herri eskolako IGEk antolatuta.

15:30 Mus txapelketa frontoian.

19:00 Koadrilen elkarretaratzea Trañako zubian.

20:00 Donien Atxa ipini. Giroa alaitzen, Sugarri fanfarrea, Iluntze taldearen dantza saioa eta urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia.

23:00 Jaialdia plazan: Betagarri eta Mandoilek.

Apirilaren 28a, domeka San Prudentzio Eguna

Umeen eta Nagusien Eguna

10:00 Txanbolin taldeko txistulariekin kalejira.

10:30 Umeentzako Quadak Traña plazan. Endu-Quad Abadiño Motor Club taldeak antolatuta.

11:00 Meza nagusia.

11:30 / 16:00 Umeentzako jolasgunea Galizia plazan. Euria bada, erabilera anitzeko pabiloian.

12:00 Kontzertua elizan, Jaizale Durangaldeko txistularien elkartearekin eta Done Zezili abesbatzarekin. Jaizale eta Musikariak taldeak antolatuta.

13:30 Bits jaia Galizia plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketaren finalaurrekoak. Atxarte pilota eskolak antolatuta.

18:00 Umeentzako antzerkia Errota kultur etxean: 'Munduari itzulia'. Gonbitarekin, apirilaren 22tik aurrera Errotan (sarrera bi, pertsonako).

19:00 Jaialdia Traña plazan Arantza eta Pantxo taldearekin. Euria bada, eskolako aterpean.

Apirilaren 30a, martitzena

20:00 Frontenis txapelketaren finala.

22:00 Bertso saioa Errota kultur etxean: Andoni Egaña, Julio Soto, Arkaitz Estiballes eta Miren Amuriza. Gai jartzailea: Eñaut Uruburu. Gogaikarri bertso eskolak antolatuta. Gonbita beharko da sartzeko, eta eskura egongo dira apirilaren 22tik aurrera Errotan (gehienez sarrera bi, pertsonako).

23:30 Su artifizialak. Euria edo haizea bada, atzeratu egingo da.

Maiatzaren 1a, eguaztena

Goizean Geu Be taldeak txahal bat erreko du Traña plazan.

10:00 Nekazari azoka Traña plazan.

11:30 Sagardo jaia Traña plazan.

12:00 Herri Kirolak Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

13:00 Iluntze taldearen dantza ekitaldia. Euria bada, erabilera anitzeko pabiloian.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketaren finala, Atxarte pilota eskolak antolatuta.

18:00 Umeentzako ikuskizuna Traña plazan: 'Txanogorritxu rock'. Euria bada, eskolako aterpean.

Maiatzaren 3a, barikua

17:00 Herri jolasak, Traña plazan. Euria bada, eskolako aterpean.

19:00 Futbito txapelketaren finala pabiloian.

21:00 San Prudentzio Texas Holdem Poker Txapelketa frontoian.

23:00 Jaialdia Traña plazan: Luhartz.

Maiatzaren 4a, zapatua Mozorro eta koadrilen eguna

12:00 Paella txapelketa merkatu plazan.

16:00 Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

17:30 Tortilla txapelketa merkatu plazan.

18:00 Txiri-txiri taldearen kalejira.

23:00 Mozorro lehiaketaren sari banaketa Trañabarren etorbidean.

23:00 Jaialdia Trañabarren etorbidean: Onda Futura+ Decada 2

Maiatzaren 5a, domeka

12:30 Pintxo lehiaketa Pinoko plazan, Barrizten kultur elkarteak eratuta.

13:00 Perretxiko pintxoaren dastaketa Pinoko plazan.

15:30 Tute txapelketa frontoian, Barnebidetza jabetzeak antolatuta.

20:00 Donien Atxa bota. Ustekabe txaranga.

Oharra: apirilaren 26tik maiatzaren 10era, kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Errota kultur etxean.



bagoaz
www.bagoaz.com
Jai zoriontsuak ospatu!

salmenta, konponketa eta boutiquea

MOTOS TABIRA

kontzertuaren ofiziala

BENELL
SCORPA
AJP
KEEWAY
PIAGGIO

Pol. Arzubia, 10-b pabiloia 48220 MATIENA-Abadiño
94 681 4068
www.motostabira.es

BETSAÏDE AUTO-ESKOLA

Montevideo, 9 - Durango
Tel.: 94 681 91 64

Gidabaimena lortzeko aukerarik onena!

ORDAINTZEKO ERRAZTASUNAK!

Teorikoko ikastaro intentsiboak:
Astelehenetik ostiralera, goizez edo arratsaldez.
Testak interneten bidez egiteko aukera

Finantzaketa aukera:
www.easycarnet.com-en bidez

PLAN APROBETXAGARRI ETA ATSEGINA UDARAKO!

Betsaide

UDA IKASTAROAK Ekainaren 26tik uztailaren 24ra - astelehenetik ostegunera

Summer camp 09:30-12:30. 6-12 urte

Errefortzu klaseak 10:00-11:00 / 11:00-12:00. Gehienez 5 pertsona

Ingeles intentsiboak 2-3 orduko klaseak

Erezena, 3 - Matiena
Tel.: 637 416 438

Maiatzak 30 izena emateko azken eguna: **betsaidels@gmail.com**

Donien atxa jarrita, jai giroari hasiera emango diote bihar, Matienan

Iluntze taldearen erakustaldiaren ondoren, urteko lagun ospetsuenari omenaldia eskainiko diote

> JONE GUENETXEA

Jaiak ofizialki bihar hasiko diren arren, gaur gauean motorrak berotzeko aukera izango da Matienan. Kartel lehiaketako sariak banatu eta gero, Durangaldeko Maketa Lehiaketan parte hartu duten hiru taldek kontzertua eskainiko dute 22:30ean, Traña plazan: Ilunbeltzean, Raxfer eta Doktors Klub taldeek.

Tradizioari eutsiz, zapa-tuan donien atxa altxatuko dute, 20:00etan. Ondoren, Sugarri fanfarrearen musikak girotu-

ko du jaien hasiera. Iluntze taldeko dantzariak erakustaldia eskaini eta gero, urteko lagun ospetsuena omenduko dute.

Maiatzaren 5era arte, ekitaldiz beteta egongo da San Prudentzioetarako prestatu duten egitaraua

Urtero egiten duten moduan, omenduaren izena isilpean gordeko dute ekitaldira arte. Eguna borobiltzeko, Betagorri eta Mandoilek taldeek kontzertua eskainiko dute Traña plazan. Maiatzaren 5era arte, ekitaldiz beteta egongo da San Prudentzioetarako prestatu duten egitaraua.



Lola Gómezek irabazi du 2013ko kartel lehiaketa

Lola Gómez Berrizko diseinatzaile grafikoak irabazi du aurten San Prudentzio jaietako kartel lehiaketa. Gaur arratsaldeko 19:00etan jasoko du saria. Donien atxa, ikurrin eta jaietako beste zenbait irudiz osatutako lana sortu du.

Kartel irabazlearen egileak gaur, arratsaldeko 19:00etan, jasoko du kartel lehiaketaren saria

Egilea "oso pozik" dago 250 euroko saria irabazteagatik, eta "alboko herri bateko jaietako irudia jartzeko aukera izateagatik".

Avilan jaietako emakume honek hainbat jai-irudi txertatu ditu kartelean, hala nola tortilla bat, su artifizialak eta pailazoak, denak ere "Traña-Matiena" hizkien barruan.

Lola Gómez duela urte eta erdi hasi zen honelako

lehiaketetara aurkeztzen, eta dagoeneko baditu irabazita bost sari, horien artean Berriz, Durango eta Iurretako jaietako kartel lehiaketetan. San Prudentzio jaietako kartela aukeratzeko, hamar lan aurkeztu dira Abadiñoko Udalak antolatutako lehiaketara, baina lehiakide bakar bat ere ez da izan 12-18 urtera bitartekoa, eta Gazteen saria hutsik geratu da.

Garage Miguel

- GARBIKETA
- TAPIZERIAK
- MEKANIKA
- GURPILAK

Arzubia, 10 A
1 Pabiloia
48220 Matiena
Tel.: 94 681 91 61
Fax: 94 621 82 64

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

R. SAMUR COMPRESORES

SALMENTA ETA KONPONKETAK
Tel.: 94 681 89 67 Tel./Faxa: 94 620 09 42
Traña industriagunea -D, 13 pabiloia (Abadiño) • samur@reparaciones-samur.com
www.reparaciones-samur.com

Cafetería Oxford

Matiena-Abadiño

ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 94 681 88 84 (Bizkaia)

Gure Kide
Albaitaritza klinika

Murueta Auzoa, 1
48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 94 620 16 21
Larrialdia: 655 88 14 22
www.gurekide.es

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia - Erradiologia
Kirurgia - Ospitalizazioa - Ile-apainketa - Osagarriak

GISASOLA PENTSUAK SL

Pentsuak - Hazirik - Etoko animaliak
Opariak - Txoriak - Loreak - Arrain tropikalek
Lorezaintzako produktuak - Indiolar, olio eta
oilaskoak - Nekazertzarako burdindeg
produktuak - Dortokak - Kaloak...

Trañabarren 27 • Matiena-Abadiño
94 681 66 87



AURREIKUSTEZINA AURREIKUSTEN DUGU

Murueta kalea, 1
U.B.G Building eraikina,
1. solairua, 2-3 bulegoa
48220 Abadiño
Tel.: 94 681 27 87 / Fax: 94 681 27 94

www.prevencionfremap.es

[AINTZAT HARTZEN ZAITUGU]

Zure enpresaren osasuna zaintzeko behar duzun guztia eskaintzen dizugu:



Gestioa eta aholkularitza: Dena kontrolpean

- OSHAS 18.000
- Gestio auditoritza
- Enpresa jardueren koordinazioa



Segurtasuna lanean: Lanpostu bakoitza toki seguru bihurtzen dugu

- Lan ekipoaren egokitzapena RD 1215/97
- Segurtasun eta osasun plana eta koordinazioa, eraikuntza obretan
- Segurtasun aholkularitza merkantzia arriskutsuen garraiorako
- Autobabesa eta larrialdi planak
- Baliabide prebentiboak
- Atmosfera leherkorak
- Lana altueratan
- Lan espazio baztertuetaiko segurtasuna
- Mugikortasun planak
- Neurketa elektrikoak



Higiene industriala: Laneko giro onena

- Agente fisiko, kimiko eta biologikoen neurketa eta ebaluazioa
- Material-zuntzen identifikazioa
- Barruko giroaren kalitatearen ebaluazioa
- Kontsumorako uraren analisisa



Ergonomia eta psikosozioiologia aplikatua: Lan-tokia pertsonari egokitzen diogu

- Mugimendu errepikakorak
- Postura derrigortuak
- Pisuen edo kargen eskuzko erabilera
- Eginkizun eta lanpostuen diseinua
- Faktore psikosozialen ebaluazioa
- Laneko jazarpen eta biolentzien protokoloen elaborazioa
- Lidergo prebentiboaren formazio espezifikoak



Lan medikuntza: Osasunaren gestio integrala

- Osasun kolektiboaren zainketa
- Osasun azterketak
- Osasuna sustatzeko kanpainak



Formazioa: Jakin beharrekoa

- Ikastaro programatuak
- Ikastaro espezifikoak enpresan
- On-line ikastaroak
- REA akreditazio ikastaroak
- Formaziorako bonifikazioen gestioak



Industria Araudiak: Ikerketa eta garapena, lan kalitatea hobetzeko

- Segurtasun araudia suteen kontra
- Atex dokumentazioa
- Segurtasuna lan espazio baztertuetaiko
- Ikuskapen arautuetarako aholkularitza (Presio tresna jasotzaileak, tentsio altu eta bajuak...)

Altzelai-Antxia eta Bakaikoa-Errandonea, final parekatuak

Maiatzaren 1ean jokatuko dituzte San Prudentzio pilota txapelketako finalak: Bakaikoa-Errandonea gazteen mailan; eta Altzelai-Antxia nagusienean

> ITSASO ESTEBAN

Asteburuko finalaurrekoetan erabaki da nortzuk jokatuko dituzten San Prudentzio jaietako pilota txapelketako finalak. Gazteen mailan, Etxeberriari gailendu zaio Bakaikoa, eta Zubiriari Errandonea. Bakaikoa eta Errandonea jokatu dute, beraz, San Prudentzio txapelketako gazteen mailako finala. Bestetik, Amantegi kanpoan utzi duen Altzelai eta Mendinuetari irabazi dion Antxia lehiatuko dira nagusien mailako txapelagatik.

Ikusgarria izateko osagai guztiak dauzka Traña-Matienako San Prudentzio jaien egitarauko pilota jaialdi honek, bai gazte bai nagusietan, maila oso altuko eta paretsuko pilotariak jardungo baitute.

“Uste dut oso final onak izan daitezkeela biak ala biak”, dio Sabino Antxia txapelketaren antolatzaileak: “Bizkaian, lau t’erdiaren barruan aurreikusi daitekeen finalik onena da eguaztenekoa”.

Maiatzaren 1ean izango dira gazte eta nagusien mailako

final hauek, Traña-Matienako frontoian.

Lau t’erdiaren barruan jokatuko dituzte, baita, kadete eta promesa kategorietako bikotekako finalak; maiatzaren 18an jokatuko dituzte final horiek, Zelaietako frontoian.

Hemeretzi urtez

Pilotazaleentzako egun seinatua izan da, azken urteetan, maiatzaren 1a. Pilotariei jokatze aukera eskaini dien San Prudentzio txapelketa honek XIX. edizioa bete du, aurten.



Umeentzako jaietako proposamenak: jolasak, antzerki emanaldiak...

‘Munduari itzulua’ antzezlanak eskainiko du herriko Goradakada antzerki taldeak domekan

> I.E.

Umeen antzerkigintzako hainbat sari jaso dituen herriko Gorakada taldearen *Munduari itzulua* obraren emanaldia jasotzen du, besteak beste, Traña-Matienako San Prudentzio jaietako egitarauak.

Apirilaren 28an, 18:00etan, izango da Errota kultur etxean Gorakadaren bidaiei buruzko emanaldi hori: hain

zuzen, jaien barruan ‘umeen eta nagusien eguna’ izendatu dutenean. Kultur etxean eskuratu daiteke emanaldirako gonbidapena.

Gorakadarenaz gainera, umeentzako beste ikuskizun bat izango da, maiatzaren 1ean, Traña plazan: *Txanogorritxu rock*.

Umeek jaiak gozatu ditzaten pentsaturiko askotariko proposamenak batzen ditu Traña-Matienako jaien egitarauak: umeak ibili daitetzen, quadak ipiniko dituzte Endu-Quad Abadiño Motor Club taldekoek apirilaren 28an; umeentzako jolasgunea egongo da goiz eta arratsalde Galizia plazan; eta bits jaia 13:30ean.

Umeentzako jolasgunea ipiniko dute apirilaren 28an goiz eta arratsalde, Galizia plazan

Gogaikarri bertso eskolak antolaturiko saioa, Errotan

Andoni Egaña, Julio Soto, Arkaitz Estiballes eta Miren Amuriza ariko dira saio horretan kantuan

> I.E.

Abadiñoako Bertso Eskolako kideek gonbidatuta datoz San Prudentzio jaietara Andoni Egaña, Julio Soto, Arkaitz Estiballes eta Miren Amuriza.

Astelehenetik eskuragai daude bertso saiora sartzeko gonbidapenak

Abadiñoako Gogaikarri bertso eskolako Eñaut Uruburu bertsolariak jardungo du gai jartzaile lanetan.

Apirilaren 30ean, 22:00etan, izango da bertso saio hori, Traña-Matienako Errota kultur etxean. Astelehenetik kulturgune horretan eskuragai dauden gonbidapenak behar ko dira bertso saiora sartzeko: antolatzaileek aurreratu dutenez, gehienez ere sarrera bi emango dizkiote bertaratzen den bertsozale bakoitzari.



**HOTEL ☆
SAN BLAS**

HSB

San Prudentzioetako menu berezia 25 €

Laubideta kalea 7 behea
Matiena - 94 681 42 00

hotelrestaurantesanblas.com

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DURA

Murueta, 6
Tel.: **94 681 87 92**
48200 ABADIÑO



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko ateak. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua



Iturritxo, 7 behe eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

10. urteurrenean murgildu aurretik, Sanprudentzioak ospatuko ditu Geu Bek

Aurten, zortzigarren bider, Geu Be elkarteak txahal bat erre eta pintxoak salduko ditu maiatzaren 1ean; Sanprudentzioak ez dira maiatzeko ospakizun bakarrak izango, maiatzaren 18tik 26ra elkartearen 10. urteurrenerako ekitaldi sorta antolatu dutelako



Geu Be elkarteko kideak euren egoitzaren aurrean, urteurreneko kartelagaz batera.

Abadiñoko Gure Ametsa baserriko txahala erre eta euro biko pintxoak salduko dute

Iaz, 2.700 euro batu zituzten ekimenagaz, eta urteren batean, 3.000 euro inguru batzera heldu dira

> JOSEBA DERTEANO

Azken zazpi urteetako tradizioari eutsiz, aurten ere Geu Bek (minusbaliotasuna duten gazteen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen elkarte) txahala erre eta pintxoak salduko ditu San Prudentzio jaietan. Maiatzaren 1ean izango da Traña-Matienako plazan. Aurten, Abadiñoko Gure Ametsa baserriko txahala (235 kilo kanalean) erreko dute Carlos Ibarrondogaz batera, eta pintxoak eta edaria euro biko salduko dituzte hurrengo egunean. Urtero legez, Eusko Labelek eta Abadiñoko Udalak ordainduko dute ekimena, eta Pinilla harategia arduratuko da txahala zatitzeaz.

Dirua batzeko ideia hori sasoi bateko Abadiñoko alkate Javier Uriartek proposatu zien: "Txosna bat ipini gura genuen, baina lekurik ez zegoenez, txahalaren

aukera proposatu zigun. Dirua behar genuenez, probatzea erabaki genuen. Izan ere, gaur egun krisia askotan aipatzen da, baina gu krisiagaz jaio ginen", azaldu du Geu Be elkarteko Jose Alfarok.

Harrezkero, finantziazio bide ez ezik, ekidin ezineko urteroko hitzordu bihurtu da: "Elkartean barneratuta dugu egun hori. Dinamika bat sortu da, bakoitzak badaki zein den bere eginbeharra, eta pozik egiten dugu. Gainera, herritarrentzako ere ohi-tura bihurtu da eguerdiko pintxoarena. Kanean galdetu egiten digute ea egingo dugun eta noiz izango den". Iaz 2.700 euro batu zituzten, eta urteren batean 3.000 euro inguru batzeraingo heldu dira.

Horixe da jaietan ofizialki antolatuko duten ekimen bakarra, baina "gu beti prest gaude edo-

zertan parte hartzeko eta jaiak animatzen laguntzeko". Hala, zapatu honetan donien atxa zelan jasotzen duten bertatik bertara ikusiko dute Geu Beko kideek.

Gazteak, begiraleak eta senitartekoak batuta, gaur egun 170 lagunek osatzen dute Geu Be.

Urteurrenaren atarian

Aurten 10 urte egingo ditu elkarteak, eta maiatzaren 18tik 26ra egitarau sendoa antolatu dute urteurrena ospatzeko. Hainbat ekintza Durangon izango dira, baina ospakizuna Durangalde osora zabalduko dutela diote. Lehenengo asteburua kirol arloko ekintzei zuzenduta egongo da, eta bigarrena, kultur ekitaldiei. Laster aurkeztuko dute egitarau osoa. Ekintza nagusiak orduan jakinaraziko dituzte, baina aurrerapen txiki bat egin du Al-

farok. Esaterako, hainbat herri-tatik mendi martxa bat egingo dute, eta Abadiñon ipini dute denak batzeko elkargunea. Zailtasun maila ezberdineko hainbat ibilbide diseinatu dituzte.

Horrez gainera, musika kontzertuak prestatu dituzte. Iruñeko Motxila 21 taldea etorriko dela aurreratu du Alfarok. Down sindromea duten gazteek osatutako taldea da, eta Barricada taldeko Enrique Villareal 'el Dro-gas' eta Marea taldeko Jose Carlos Romeroren laguntza izango dute: "Motxila 21 etortzea handia da guretzat. Ikustea benetan merezi du. Interneten euren gaineko informazioa bilatzeko gonbita egin gura diot jendeari". Euren batera, Idi Bihotz taldeko kideek osatutako Jare taldea ere etorriko da. Geu Beko jaira batu-ko den hirugarren taldearen ize-na "sekretua da oraindik".

Zainduz
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
Ane Legorburu Munitxa
Trañabarren 13 - 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 94 465 71 32 - Mug.: 686 906 374

ESTANKO ALBERDI
Zubiarte, 7 • Tel.: 94 681 40 33 • MATIENA

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA
EUSKO LABEL
KALITATEA

PINILLA
BASERRIKO OKELA
Trañabarren, 29
Tel.: 94 681 51 27
MATIENA - ABADIÑO

BAR OREGI JATETXEA
Eguneko menua
Menu bereziak
Plater konbinatuak
Razioak
JADA ZABALIK!
Zubibitarte, 3 - Matiena
Tel.: 94 681 40 11

IÑAKI ORTIZ DE VILLALBA | BETAGARRI taldeko abeslaria | Gasteiz (Araba)

“Esan izan balidate hogei urtez egongo nintzela, ez nuke sinistuko”

Hogei urte beteta, Betagarrik ‘Zorion Argiak’ izeneko disko berezia aurkeztuko du bihar, San Prudentzio jaien barruan



Iñaki Ortiz de Villalba, ezkerretik hasita laugarrena, bere taldekideekin batera.

23 abestiko diskoa dakarzue Traña-Matienara. Ez da ohikoa horren lan luzea kaleratzea.

Normalean, diskoak bi urtean behin egiten ditugu. Oraingoan, disko baterako baino abesti gehiago geneuzkan. Komentatu genuen agian bazegoela aukera argitalpena atzeratzeko, eta horrekin batera, beste proiektu zabalago batean sartzeko. Horretan pentsatzen hasi ginen. Hogei urte bete behar genituen, eta disko desberdina egin nahi genuen. Abesti berri batzuek ez daukate betiko *betagarritasun* hori, beste batzuek abestuta daudelako. Adibidez, Pirritxek eta Porrotxek abesten dutena pailazoek egiten duten musikatik hurbil dago; Mikel Urdangarinen oso intimoa da...

Inflexio puntua da zuentzako?
Bai. Berrasmatzea ez da erra-

za, eta disko bakarra ateratzea betikoa iruditzen zitzaigun. Bazen garaia zerbaite desberdina egiteko.

Disko honetan ere, mezu sozial eta politikoek badute lekurik.

Herri honetan bizi izanda, oso zaila da halako gauzetatik ihes egitea, ez ikusiarena egitea. Batzuek diote ez direla nahastu behar gauzak, baina gure ustez, ezin dugu ahaztu non bizi garen eta zer garen. Letra sozialak eta politikoak izan ahal dira, baina abesti batzuetan, ez disko orokorrean. Ez dugu nahi horretan jaustea. Erreibindikatzeko badaude moduak eta moduak.

Zelan gogoratzen dituzu hasierako sasoi haiek? Dagoeneko hogei urte pasa dira...

Egia esateko, inoiz ez nion galdetu nire buruari zenbat urte

emango nituen honetan. Esan izan balidate hogei urtez egongo nintzela, ez nuke sinistuko. 80ko hamarkadako musikatik etenaldi bat egon zen. 90ekoan gu eta Skalariak hasi ginen ska-rockaren bidetik. Horrela hasi ginen, eta gazte haiek orain gurasoak dira. Etortzen dira bisita egiten euren seme-alabekin, akaso soinu-probetara, kontzertuan ezin dutelako geratu. Gauza politena askotan ez da musika egitea, baizik eta bidean topatzen dizun jendeagaz konpartitzea.

Eta oraingo gazteak ere erakarzen dituzue.

Harritzen nauena da, hama-host-hamasei urteko gazteentzat oraindik erreferente izatea. Hori polita da. Agian ez dira hainbeste aldatu jendeak musika entzuteko dituen ohiturak. Badakigu zein izan ahal den gure

publikoa; gazte horiek hor egoitea oso garrantzitsua da. Hori ikuslearen aldetik. Durango diskoak saltzen egon ginean, entzulegoa oso zabala zen. Etortzen ziren umeak, gazteak, helduak eta zaharrak ere bai. Etorri zitzaidan 60 urte inguruko emakume bat eta esan nion: “Ilobarentzat?”. Berak: ‘Ez, ez, niretzako da’. 40 urte inguruko beste bat etorri eta esan zidan guri eskerrak ikasi zuela tronpetat jotzen. Nolabait, hainbat jenderen bizitzetan sartzen zara, etxeetan. Eskertzekoa da.

Zuzeneko taldea zarete.

Bai. Egia esateko, gure zuzeneko da zelanbait garrantzia hartzen duena, eta ikusgarriena izan daiteke. Agian, azkenengo disko hau gehiago da taberna batean edo etxean entzuteko, nahiko anitza delako. Nor-

“Berrasmatzea ez da erraza, eta disko bakarra ateratzea betikoa iruditzen zitzaigun”

malean reggaeak eta antzekoak ez ditugu jotzen, bizitasuna gus-tatzen zaigulako eta jendeak ere hori nahi duelako. Argi dauka-guk zuzenean daukagula indarra, eta egiten dugun musika plazetarako da.

Zelan bizi dituzue kontzertuak?

Badira urte pilo bat, ia-ia 1.000 kontzertu, hainbeste kanpoan, hemen.... Xarma hori galdu izan bagenu, ez ginateke igoko eszenatokira.

neumáticos ETXEBARRIA

MICHELIN BFGoodrich BRIDGESTONE Firestone

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
(Hiper Eroskiaren ondoan)
Tel: 94 623 25 20 - Fax: 94 620 36 22

> EMANALDIAK

L' Atelierreko ikasleek kalera aterako dute dantza, bihar

300 dantzari batuko dira Dantzaren Nazioarteko Eguneko egitarauan

Dantzaren askotariko diziplinen erakustaldiak egingo dituzte, bihar, L'Atelier dantza eskolakoek Durangoko kaleetan:

balleta, funkya, break dancea, hip-hop, dantza garaikidea eta neoklasikoa izango dira ikusgai, besteak beste.

Laugarrenez antolatu du L'Atelier eskolak Dantzaren Nazioarteko Egunagaz bat egiteko programazioa. Aurten, 300 dan-

tzari batuko dira egun guztira-ko antolatu duten egitarauaren bueltan.

Durangoko dantza eskolako 3 urtetik aurrerako dantzariak, Basauriko dantza eskolakoek, Bogoroditsie abesbatzekoek eta GehiZazpi harizko laukoteak parte hartuko dute, esaterako, iluntzeko emanaldian.

Dantza kalera ateratzea da helburua: "Jendeak ikusi dezan eskola barruan zer lan egiten dugun", dio Oihane Azkonizaga eskolaren zuzendariak.

Dantza kalera ateratzea da egitarauaren helburua: "Jendeak eskolan zer lan egiten dugun ikus dezan"

Goizean, hiru urtetik aurrerako umeak dantzan ikusteko aukera izango da (11:30ean udaletxe parean, eta 13:00etan Sanagustinalden): Ballet klasikoko barrako ariketen erakustaldi bat

egingo dute, Sanagustinaldeko errekararen barandan.

Bertaratu nahi duten guztientzako bazkaria egingo dute Plateruena kafe antzokian, eta *Cats* musikalaren lagin bat aurkeztuko dute ballet klasikoko ikasleek bazkalostean.

EGITARAUA

11:30. Flashmob (txikiak)
· Udaletxean.

12:30. L'Atelier balleta.
13:00. L'Atelier balleta.

13:45. Zozketa.
· Sanagustinalden.

14:30. Bazkaria eta 'Cats' musikalaren emanaldia
· Kafe Antzokia.

18:30. Flashmob.
· Ezkurdin.

19:00. Flashmob.
· Andra Marin.

20:30. L'Atelier balleteko dantzarien emanaldia
· Uribarriko Andra Maria basilikan.



Sanagustinaldeko errekarako barandan, ballet klasiko erakustaldia egingo dute dantza ikasleek.

> ANTZERKIA

Zugan Ni jaialdiaren itxiera eta sari banaketa egingo dute, domekan

Bihar, Zugan Ni Eguna ospatuko dute Zornotzan; domekan zazpi talde ariko dira San Agustinen

Markeliñe antzerki konpainiaren babesean sorturiko Zugan Ni jaialdiaren barruko ekimena da, bihar, Zornotzan egingo duten bigarren Zugan Ni Eguna. Antzerkia zein beste adierazpide batzuk baliatuta gazteek sorturiko arteen erakusketa egingo dute, bihar goizean, Zornotzako Herriko Plazan: musika, margogintza, eta antzerkia baliatuta, esaterako.


Arratsaldean, 17:00etan hasita, Zugan Ni ekimenaren seigarren edizioan parte hartzen diharduten Igorre, Durango, Iurreta eta Zornotzako zazpi taldeen emanaldia izango da Zornotza Aretoan.

Asteon, eguaztenean Iurretan eta gaur Igorren ere izan dituzte antzerki taldeek emanaldiak, eta domekan Durangoko San Agustinen itxiera dute aurtengo jaialdia. Parte hartu duten zazpi taldeek emanaldia eskainiko dute 17:00etan, eta sari banaketa egingo dute ostean.

Igorre, Durango, Iurreta eta Durangoko zazpi taldeen emanaldia izango da, bihar, Zornotza Aretoan



GURE IKASLEEN AHOTAN



Akaitz Gallastegi (Elorrio, 22 urte) informatika ingeniarietako 3. maila ikasten ari da. Elkarrizketa honetan unibertsitatea eta gradu hau nolakoak diren azalduko digu.

"MUTik gehien gustatzen zaidana zera da, ikasleoi ematen diguten autonomia"



Zergatik aukeratu zenuen informatika ingeniarietako gradua? Eta zergatik MUn?

Niri betidanik gustatu izan zait ordenagailuen mundua, horregatik egin nuen Heziketa Zikloa Mondragon Goi Eskola Politeknikoan. Ikasketa horiek bukatutakoan, informatikari buruz nituen ezagutzak handitu nahi nituen, erabaki nuen ingeniarietza egitea. MU-n egitea erabaki nuen Heziketa Zikloan oso gustura egon nintzelako. Besteak beste, proiektuetan oinarritutako ikasketekin duten tratuagatik aukeratu nuen MONDRAGON UNIBERTSITATEA.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia oso ona izan da, zeren eta nire ezagutzak handitu egin ditut eta talde lanean jarduten ikasi dut. Horretaz gain, jende interesgarria ezagutu dut, bai ikasleak, baita irakasleak ere.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia? Alde praktikoari garrantzi handia ematen zaio?

MU-ko metodologia POPBL (Project Oriented Problem Based Learning) metodologian oinarrituta dago. Metodologia honekin, eskola teorikoetan jasotako ezagutzak praktikan jarri behar dira proiektu batean. Horrela, ikasleek autonomoki lan egiten ikasten dute. Talde lanari ere izugarritzko garrantzia ematen zaio.

MUTik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Ikasleoi ematen diguten autonomia ikasteko orduan, baita

ikasleak praktiketan oinarritzen direla ere.

Eta zerbait hobetzeko?

Nik ikasgai batzuk emateko ordena aldatuko nuke. Lehenengo urtean eman beharreko ikasgai batzuk 3. mailan eman ditugu. Beste dena ondo dagoela iruditzen zait.

Badakizu non egingo dituzun praktikak edota ikasturte amaierako proiektua?

Ni hurrengo urtean Suediara joango naiz, bertako unibertsitate batean ikasgai batzuk jasotzera. Enpresaren mundua aurtien ezagutu dut, bekario moduan nabilelako lanean unibertsitatean bertan, eta kanpora joateko aukera eman didatenez, aukera hau baliatzea erabaki dut.

Etorkizunerako zeintzuk dira zure asmoak?

Etorkizunean master bat egitea gustatuko litzaidake, gai zehatz batean espezializatzeko.

OSASUN GIDA



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**



FISIOTERAPIA



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tel. 94 655 00 49 - 695 784 963



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drenatze linfatikoa (masektomia ondoren),...*

Iturriza, 44 - behe ezkerre
48240 BERRIZ

tel. 94 622 55 93



FISIOTERAPIA



**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tel. 94 465 71 32 - 686 906 374



**HIRU
FISIOTERAPIA**

asteleheneretik ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tel. 94 466 94 00



PSICOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

tel. 94 603 32 46 - 629 245 728



PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

tel. 94 620 11 00



**GOIATZ MURUA LETURIAGA
PODOLOGOA**

Kiropodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4 - behea
48200 DURANGO

tel. 94 620 36 30



PEDAGOGIA



**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tel. 94 466 83 70 - 615 782 090



ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Murueta Torre, 2 - C behea
48200 DURANGO

tel. 94 681 99 51



OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tel. 94 622 50 99



KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA
DIGIPUNTURA**

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tel. 94 620 00 52

Pablo Berasaluze | 35 urte, Berriz |

“Seguruenik txapelketako momenturik onenean jokatuko dugu finala”

Txapelketa “nahiko justu” hasi arren, aurrera egin ahala, puntu egokia hartu dutela dio berriztarrak

> JOSEBA DERTEANO

Bizkaian, ikusmin handia sortu du binakako txapelketako finalak. Durangaldean ere, ez zaio animorik faltako Pablo Berasaluzeri. 35 urte dituen arren, bere ibilbideko unerik gozoenak bizitzen dabil, eta lehen mailako bere aurreneko txapela jantzi dezake etzi.

Txapelketa lau porrotekin hasi eta, etzi, finala jokatu-ko duzue.

Txapelketak horrelakoak dira. Nahiko justu ekin nion txapelketari. Lau t'erdikoa amaitu eta ia jarraian hasi ginen binakoagaz, eta ez da erraza. Hasieran ez nengoen gustura. Gerora, nik uste, biok nahiko txapelketa ona egin dugula.

Irujori eta Zabaletari 22-14 irabazita, zer unetan heltzen zarete finalera?

Bai Jon Anderrek eta bai nik azkeneko partiduan eman dugu mailarik onena. Biok nahiko ondo ditugu eskuak. Jokoz zein fisikoki ere ondo gaude. Seguruenik txapelketako unerik onenean jokatu-ko dugu finala.

Partidu hartatik zer erresketatu daiteke finalera begira? Ezer ez. Finalak diferenteak dira. Beste partidu bat da, fron-

toia eta materiala aldatuko dira... Bezperako partiduak ahaztu egiten dira.

Albisu maila ikaragarrian ibili zen Irujo eta Zabaletaren aurka.

Jon Anderrek kritika asko jasotzen duen arren, nire ustez, beste pilotari batzuek ere, ni neu barruan sartuta, partidu kaskarrak jokatu izan ditugu, eta ez dugu hainbeste kritika entzun. Pilotari gaztea da, eta normala da une batzuetan pilota asko galtzea. Esperientzia falta du. Bere osotasunean hartuta, Jon Anderrek oso txapelketa ona egin du, bestela ez zen finalera helduko.

Bikote moduan, apurka elkar hartzen joan zarete?

Partidu asko jokatu izan ditugu elkarrekin, eta bikote moduan beti funtzionatu dugu ondo. Iazko txapelketan ondo ibili ginen eta, ondoren, udako torneo bat baino gehiago jokatu genuen elkarrekin. Aurten, txapelketak aurrera egin ahala hartu dugu puntu egoki hori.

35 urte gaz, txapel bat irabazteko azken aukeratarikoa dela sentitzen duzu?

Ezetz uste dut. Jokatzeko gabil-tzanon artean beti dago irabazteko ilusioa. Gaur egun, final

bat jokatzeko gaitza da. Oso maila handia dago: Irujo, Olaizola, Bengoetxea VI.a, Xala... Horien artean jokatzeko ibiltzea niretzako asko da, eta final batera heldzea ikaragarria. Aurten finale-ra heldu naizen moduan, beharbada ez naiz berriro helduko, baina hor nabilen artean, beti egongo dira aukerak.

Hamaika elkarrizketa eman dituzu egunotan. Zer egiten duzu zurrumbilo horretatik aldentzeko?

Ez naiz aldentzen. Jende guztia-ekin berba egiten dut. Jendeak zoriontzia eta euren babes-ja-sotzea gauza handia da. Azken batean, bizi dudana hau dena bi-zitzea seinale ona da.

Finalean berriztar bi aurrez aurre egoteko puntuan egon zarete.

Ibai Zabalak oso txapelketa ona egin du. Partidu txar bat egin zuen Irujo eta Zabaletaren aurka, baina oro har, joko onagaz ibili da eta oso ondo jokatu du.

1999an Belokigaz 22-17 galdu zenuen finala. Zelan gogoratzen duzu?

Pilotalekua topera, kantzara ir-tetean zalaparta handia zalee-kin... Rubenek (Beloki) txapel-keta ikaragarria jokatu zuen,

eta ni ez nintzen hain ondo ibili. Baina finalean ondo jokatu nuela uste dut, nahiz eta galdu.

Finala Bilbon da. Zaleen animorik ez zaizu faltako.

Bilbon zela jakitean, poz itzela hartu nuen. Afizioak asko bul-tzatzen du, eta etxean jokatzeko gertatu ahal zitzaidan gauzarik politena da.

Profesional moduan, 15 urte egin dituzu aurten. Bide luzea da.

Denetarik izan dut. Oso momen-tu onak egon dira, eta oso mo-mentu txarrak ere bai. Baina joandakoak joanda daude, eta aurrera begiratu behar da.

Finalaren ostean, zer?

Hamar bat eguneko atsedena hartuko dut. Irailetik hona egu-nero topera entrenatzen ibili naiz. Lau t'erdikoa oso gogorra izan zen. Ondoren, binakakoan 17 partidu segidan... Psikologi-koki nekagarria da.

Plateruena kafe antzo-kiak pantaila erraldoian eskainiko du domekako finala, eta Pablo Berasaluzek sinatutako kamiseta zozketatuko dute.

> DUATLOIA

Unai Urien azpitzapeldun, distantzia luzeko duatloian

Mugarra triatloi taldeko Unai Urien distantzia luzeko duatloien Euskadiko azpitzapeldun (23 urtez azpiko mailan) geratu da joan den asteburuan Arrigorriar egindako lasterketan. Proba 69 postuan amaitu zuen, baina 23 urtez azpiko mailan Ander Zubizarreta (AzkoitikoTT) bakarrik geratu zen haren aurretik.

Gizonen maila absolutuan zazpigarren amaitu zuen Gor-ka Bizkarrak (MugarraTT). Emakumeetan, Abadiño-ko Laubideta taldeko Maite Unzueta bosgarren sailkatu zen.

> ATLETISMOA

Bidezabal Bizkaiko txapeldun, 20 urtez azpikoan

Joan zen asteburuan 20 urtez azpiko Bizkaiko Klubaren arteko Txapelketa irabazi zuen Bidezabal atletismo taldeak gizonetan eta emakumeetan. Bidezabal bederatzi probatan nagusitu zen. Iaz sortu-tako Durango Kirol Klubak lehenengoz parte hartu zuen txapelketan, eta Lekeitioko Tximista taldeagaz batera bigarren amaitu zuen emakumeetan eta bosgarren gizonetan. Txapelketa Basa-uriko Artunduaga kirolde-gian jokatu zuten.

> MOTORRA

Mas Curvasek 6. urteurrena ospatuko du

Durangoko Mas Curvas motorzaleen elkarteak bere sei-garren urteurrena ospatuko du domeka honetarako pres-tatu duten XI. Motohama-rretako ibilbidearekin. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke Mas Curvasen egoi-tzan, 09:30etik aurrera (bost euro). Ondoren, 10:15 ingu-ruan elkarteak diseinatuta-ko ibilbideari ekingo diote, os-pakizuna kalera ateratzeko. Bueltarako, askotariko pin-txoez osatutako hamabieta-koa izango dute prest.

> AUTOMOBILISMOA

F3ko zirku txikiari ekingo dio Igor Urienek Frantziako zirkuituan

Emilio de Villota Motorsport taldearen F308 monoplagaz ikastea eta pilotu lez haztea ditu helburu



Emilio de Villota eta Igor Urien aurtengo monoplagaz, Amorebieta-Etxanoko AIC zentroan egindako aurkezpen ekitaldian.

> JOSEBA DERTEANO

Formula 1a 'zirku handia' moduan ezagutzen bada, Igor Urienek asteburu honetan hasiko duen Formula 3ko Openak ondo merezia du 'zirku txikia' izena. Umetatik bolante bat esku artean izan duen arren, aurtengo abenturak ez du aurrekoekin zerikusirik. Emilio de Villota Motorsport taldera batu eta Formula 3ko Openari aurre egitea jauzi handi bat da. Argi geratu zen hori joan zen barikuan, Amorebieta-Etxanoko AIC zentroan egindako aurkezpenean. Agintariz (Jose Luis Bilbao ahaldun nagusia, Jose Luis Navarro Abadiño alkatea) eta hedabidez inguratuta aurkeztu zituen aurtengo helburuak.

Ekitaldia aurtun erabiliko duen F308ari estalkia kenduz hasi zuen. Pasa den urtera arte gidatzen zuen monoplagaz al-

deratuta, aerodinamika alorretik igarri du alderik handiena: "Iazkoak motor hobia zuen, baina karga aerodinamiko txikia. Aurtengoak motor txikiagoa du, baina aerodinamika diseinuari esker, asfaltuari hobeto heltzen dio. Egia esanda, asko disfrutatzen dut monoplagaz hau gidatzen", adierazi zuen Urienek.

Datozen hiru denboraldiatarako helburuak jakinarazi zituen. Aurtun "ahalik eta gehien ikastea dut helburu" dio, baina irribarretxo bategaz, "beti dago gauzak ondo egiteko gogoia", gehitu du. 2014an txapelketa irabazteko borrokan egotea da asmoa, eta hirugarrenean, World Series Renault txapelketan (hor-

tik gora Formula 1a bakarrik dago) probatuko luke.

Denboraldia zortzi lasterketek (Alemanian, Erresuma Batuetan, Italian...) osatuko dute. Asteburu honetako aurrenekoa Frantziako Paul Ricard zirkuituan izango da.

> Bideoa: 'anboto.org'-en

E. de Villota: "Igor Urien izar bat da hasi zenetik"

Eskuderiako buruak laudorioak eskaini zizkion

Emilio de Villotak —F1eko pilotu ohia eta Urienen eskuderiako zuzendaria— bertatik bertara jarraitu zuen aurkezpena, eta laudorio bat baino gehiago eskaini zion: "Bere apaltasunagatik liluratzen zaituen pertsona da Igor. Automobilismoaren

munduan ez dira sarri ikusten horrelako adibideak; denak izarrak izaten dira, benetan izar bihurtu aurretik. Igor izar bat da hasi zenetik. Diamante landugabea dela esatera nindoan, baina dagoeneko forma hartzen ari den diamantea da. Eta esan

dudana aurreko urteetako lorpenek berresten dute".

Igor Urien unibertsitatean hasi da aurtun, eta Arrasaten ingenieritza mekanikoa ikasten dabil. Automobilismoa eta ikasketak bateratzeko ahalegina ere azpimarratu gura izan du Emilio de Villotak: "Normalean automobilismoan dihardutenek ikasketak uzten dituzte. Gaur egun gazteriak zelakoa izan behar duen erakusten duen adibide bat da Igor".

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

Mendi lasterketak

Euskal selekzioa Otañesen

Aurreko igandean, apirilak 21, jokatu zen Otañesen Espainiako Kopako lehen proba, eta gure neska-mutilek bikain erantzun zioten denboraldiko lehen erronka garrantzitsuari.

Lasterketa luzea eta gogorra da Otañeskoa; hogeita hamalau kilometro ditu, eta 2.100 metroko malda positiboa. Majo sufritu zuten denek, baina lortutako emaitzek merezi izan zuten. Batez ere gure neskek lortu zituzten emaitzarik aipagarrienak. Aitziber Ibarbia podiumera igo zen, bigarren sailkatuta. Hasieratik aurreko postuetan ibili eta lasterketak aurrera egin ahala hobetzen joan zen. Hogeita seigarren kilometroan jadanik bigarren finkatuta, podiuma lortu zuen. Bere atzetik, Nerea Amilibia sartu zen, laugarren postuan, eta minutu batera Elena Calvillo, bosgarrenean. Borroka polita izan zuten Nereak eta Elenak lasterketa osoan, elkarrekin joan ziren momentu oro, azkenengo bi kilometroak faltan Nereak eraso jo zuen arte.

Mutiletan, berriz, Hassan Aitchaou izan zen onena, bosgarren postuan sailkatuta. Honek ere lanak izan zituen azken kilometroetan. Kolpe baten ondorioz, min hartu zuen eskuineko hankan eta podiuma eskura izan bazuen ere, azkenean bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Bere atzetik Aritz Egea sartu zen, seigarren. Oso lasterketa erregularra egin zuen Aritzek, beti aurreko postuetan kokatuta. Atzerago Imanol Goñi sailkatu zen, hamahirugarren postuan, eta hogeigarrenean Oier Ariznabarreta.

katerin
ardoak
iñaki
uribe

saltsan

Eguneko eta asteburuetako menuak - Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturritza, 42 - 2. ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ

> HERRI KIROLAK

Maiztegiko gaztetxoek erakustaldia eskainiko dute Oromiñoko jaietan

Bihar, 9 eta 12 urte bitarteko 20 bat gaztetxok hainbat modalitatetan jardungo dute

> JOSEBA DERTEANO

Orain hiru urte benjamin eta ki-mu mailetako herri kirol taldea sortu zuten Maiztegi herri eskolan. Gaur egun, neska eta mutil, 28 gaztetxo dabilta eta horietako asko Oromiñoko jaietan batuko dira bihar, 18:00etan, hainbat modalitatetan erakustaldiak eskaintzeko: txokorrak batzen, txingak eta zakua eroaten, inguda jasozten eta sokatiran ibiliko dira.

Jon Iñaki Etxaniz ondarrutarraren aginduetara ibiliko dira denak. Etxaniz Mutrikuko sokatira taldean ibilitakoa da, eta herri kirolen erakustaldi asko egin ditu herriz herri. Iurretan, gaztetxoei herri kirolen mundua ezagutzeko aukera eskaintzea zuen helburu: "Gipuzkoan udal, Aldundi eta eskolen artean programa komuna sortua zuten, eta hemen inguruan ez nuen horrelakorik ikusten herri kirolen eta gaztetxoaren inguruan. Horregatik erabaki nuen Maiztegiko ikasleei aukera eskaintzea". Gaur egun, Zarate eta Elexpereen laguntzagaz, talde dotorea du benjaminetako 18 gaztetxorekin (talde bitan banatuta) eta kimuetako beste hamarrek.



Maiztegi herri eskolako gaztetxoak guriari itzuliak ematen; herri kirolen modalitate hori ere lantzen dute.

Esperientziak esaten dio 12 urtetatik aurrera gaitza dela gaztetxoak herri kirolean mantentzea: "Benjaminetatik kimuetara pasatzen direnean erdiak geratzen dira. Kimuetatik aurrera oraindino gaitzagoa da".

Aldundiko programa baten bidez, urtean hiru-lau herritan lehiatzen dira. Otsailean Berri-

Otsailean Berrizen eta martxoan Gernikan lehiatu dira, Bizkaiko beste hainbat herri kirol taldegaz batera

zen eta martxoan Gernikan ibili ziren, beste hainbat taldegaz batera. Domeka honetan, hirugarren saioa izango dute Zeberion eta Bizkaiko final nagusia Baurin egingo dute maiatzaren 12an. Euskadiko txapelketako finala, aldiz, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan izango da, maiatzaren 26an.

> IGOERAK

Elorrioko Buskantza areto futbolearen eta Iurretako B futbolearen igo egin dira

Buskantza Hirugarren mailara eta Iurretako B Bigarren erregionalerara igo dira



Ezkerrean, Iurretako Bko jokalariek igoera ospatzen. Eskuman, Elorrioko Buskantzaren aurtengo talde nagusia.

Joan zen asteburuan igoera bana ospatu zuten Elorrioko eta Iurretako. Aretoko futbolearen, Elorrioko Buskantza Hirugarren Mailara bueltatuko da, urtebete Euskal Ligan emanda. Futbolearen, Iurretako Bk Bigarren Erregionalerara igoetza lortu du.

Elorrioko Buskantzak Arabako EHU etxetik kanpora 4-5 menderatuta lortu zuen igoera. Iker Saenz de la Cuesta entrenatzailearen esanetan, "oso talde konprometitua izan dut partiduetan zein entrenamenduetan, eta hori egon da igoeraren gakoa".

Orain aste gutxi Elorrioko C taldeak ere Lehenengo Erregionalerara igoetza lortu zuen. Baina oraindik ikusteko dago mai-

